

GAIA: EMMI PIKLER • ESPERIENTZIA: ALBAOLAKO LARRUZKO BELAONTZIA •  
EKARPENAK: PROIEKTUAK ALA MOZORROAK? • GALDEIDAZUE: MAKE IRIGOIEN  
• BARATZE BASERRI ESKOLA • ATZEKO ATETIK: MAITE GURRUTXAGA

**hh**  
hik hasi

**148**

4 EURO • 2010EKO MAIATZA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA




**ELKARRIZKETA**

**MARIAM BILBATUA**

“Metodologiak duen garrantzia handia da”

+10 urte



Rita kanpin batera joan da oporrak pasatzera. Ez dago gustura, ez baitu batere atsegin kanpin-denda batean lo egitea. Behin Robinson Crusoeri buruz hitz egin zioten, eta hark uharte galdu batean bizi izandako abenturak errepikatu nahi izango ditu.

**RITA ROBINSON**  
Mikel Valverde

+5 urte



Gizateriaren historian jatorrizko ipuinik bada, Adan eta Eba paradisu bizi zireneko hura da, maitasun istorio haren kontakizun eleberritua da ipuin hau, ama batek bere alabari kontatua.

Mariasun Landa • Maite Gurrutxaga  
**IPURTARGIAK PARADISUAN**

Gure LITERATURA zutaz mintzo da

[www.elkarargialetxea.com](http://www.elkarargialetxea.com)

**elkar**

+12 urte

**EHUN IPUIN  
HITZ GUTXITAN**


Joxan Ormazabal • Jon Zabaleta



Bizitzako kontuak 100 ipuinetan, umorez beteak, pentsatzeko eta gozatzeko. Haurrentzat eta haur izan zirenentzat ere egokiak.

Pello Añorga • Jokin Mitxelena  
**POTTOKO HIPERMERKATUAN**

Baserrian bizi da Pottoko, mendi artean. Auzoan, ordea, Hipermerkatu Elefante ireki dute, eta hara doa gurasoekin... Zer egingo du Pottokok hainbeste marka, produktu eta gauza artean?



+8 urte

# aurkibidea



**8**  
gaia

## MONTSE FABRES

Kataluniako Mestres per l'autonomia taldeko kide den Montse Fabres andreak Emmi Pikler pediarraren ekarpena izan zuen hizpide, eta ikuspegi orokorretik zehatzerako bidaia proposatu zuen. Jatorduen unea izan zen bere hitzaldiaren ardatz nagusia.



**16**  
elkarrizketak

## MARIAM BILBATUA

Mondragon Unibertsitateko HUHEZlko irakasleak "Irakasle-ikasle eta ikasleen arteko interakzioak irakurketa eta idazketaren ikaste prozesuaren hastapenetan" tesia egin berri du. Haren ondorioak eta hezkuntza, oro har, izan ditu aztergai.

**5** editoriala

**6** kronika

**8** gaia

**EMMI PIKLER (II)**

JATORDUETAKO ZAIINTZA

**16** elkarrizketa

**MARIAM BILBATUA**

**24** esperientziak

Albaolako elkarte eta larruzko belaontziaren proiektua  
Pasaia-Lezo lizeoa

**27** ekarpenak

Proiektuak ala moztarroak?

Elixabete Ansa

**30** galdeidazue

Zein eragin dute telesailak neska nerabeen sozializazioan?  
Make Irigoien Peruarena

**33** berriak

**40** nora joango gara?

Baratze Ingurugiro Heziketa Eskola

Esperientzia bizi-bizia

**42** Atzeko atetik

Maite Gurrutxaga

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguilá eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa:

hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Izaskun Beraza eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: hik hasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2010-04-14). Kopurua: 3.700 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

# Harpidetza orria



**hik hasi<sub>k</sub>**  
zure parte-hartzea  
ezinbestekoa du,  
**harpide zaituz!**  
50 euro urtean

Prezio horren barruan  
10 aldizkari, ale monografikoak  
eta Euskal Herriko baliabide  
pedagogikoen gida.  
Horrez gain, prezio bereziak  
Udako Topaketetan eta  
argitararazten ditugun  
gainontzeko materialetan

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**hik hasi** Euskal heziketarako aldizkaria  
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua  
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA  
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK  
(BEZ barne) 50 euro

# editoriala maiatza

## *Jendarte kohesioan inor ezin delako bazter utzi*



**Eskoletan, elkarbizitzaz, pertsona gisa eta herri gisa ditugun eskubideez eta denontzako jendarte bidezkoagoa berma dezaketen ereduez aritzen saiatzen ari gara. Jakinik, denok parte garen jendarte hau zerbait izatekotan anitza dela.**

Euskal Herritar askok “Formación del Espíritu Nacional” jaso zuten beren ikasketetan. Izan ere, frankismo garaian, batxillergoan derrigorrezko asig-natura zen.

Ebaluatu egiten zen, eta gainditze-ko nahiko erraza omen zen; ezagutza baino gehiago neurtzen omen baitzen jarrera.

Formazio hartan, beste hainbat alderdiren artean, biktimekiko begirunea eta atxikimendua lantzen zen, eta, batez ere, borreroekiko gaitzespena.

Hala, euskal herritar askoren buru eta irudimen samurretan, komunistak, gorriak, deabruaren pareko izaki bel-durgarriak bihurtu zituzten. Eta gorri, berriz, erregimenaren postulatuetatik at zegoen guztia.

Herritar haietako asko frankismoaren basakeria krudela zuzenean pairatzen ari baziren ere, etxeko sufrimendua isiltzen eta ezkututzen ikasi behar izan zituzten. Biktimek, eta haien senideek, diktadurak idatzitako izen-abizenak baitzituzten.

Garai haiek aspaldi atzean utziak genituelakoan geunden asko. Orduetik, besteak beste, munduak ere aurrera egin duelako.

Eskoletan, elkarbizitzaz, pertsona gisa eta herri gisa ditugun eskubideez eta denontzako jendarte bidezkoagoa berma dezaketen ereduez aritzen saiatzen ari ginen. Jakinik, denok parte garen jendarte hau zerbait izatekotan anitza dela.

Gure jendartea mila sufrimendutan puskatuta dago; sufrimenduak, izan, milaka aurpegi baititu.

Horizen eskolan orain arte indarkeriari legitimazioa kentzeko egiten ari ginen ahalegina. Gelan, indarkeria mota askotako biktimek baititugu: Espainiako Gerra Zibiletik desagertuta jarraitzen dutenen, fusilatu zituztenen, kartzelan eta erbestean daudenen, torturatuen eta baita ETAko ekintzak jasan dituztenen etxekoak ditugu. Langabetuen seme-alabak, lan istripuak pairatzen dituztenenak, tratu txarrak eta genero indarkeria jasan dituztenenak,

baztertuta bizi direnenak...

Eta hori guztia kudeatzen dugu egunero, denok elkarbizitzeko ahalegina eginez. Zertarako? Jendarte kohesioan sakondu behar dugulako.

Horri guztiari izkin eginez, Hezkuntza arduradunek *Indarkeriari legitimazioa kentzea eta bizikidetza demokratikoa (2010-2011)* plana aurkeztu eta martxan jarriko dute, horretarako inposizioa erabili behar badute ere.

Kezkagarria, tamalgarria, tristea, larria da arduradun horiek eskoletan egiten den lanaren gainean zein ezagutza gutxi duten ikustea –edo gutxi axola zaielako da?–.

Hezitzaileok ez dugu nahi aurretik probatuak diren eta inora ez daramaten bideak berregin. Bizikidetza demokratikoan sakontzen ari gara jada, eta bide horretan ezin zaio inori bere sufrimendua edo biktime sentimendua ukatu. Denak kontuan hartzen jarraitu nahi dugu, denen arteko elkarriketak eta denen ikuspuntuak ahalbideratuko baitituzte aurrerako urratsak.

# kronika

Europako Batasuneko Hezkuntza Ministroek goi mailako titulua duten hiritarren kopurua handitzeko apustua egin dute. Unibertsitate ikasketetan ez ezik, baita Goi-Mailako Lanbide Heziketan ere egingo dute ahalegina. Madrilen bildu ziren joan den apirilaren erdialdera Europako Batasuneko hezkuntza ministroak, eta besteak beste, hezkuntzaren alorrean Europak dituen erronken gainean hitz egitekoak ziren. Eskola uztearen portzentaiak jaisteko beharri arreta berezia eskainiz, Herralde bakoitzeko ordezkariak beren ikuspuntua plazaratu zuten. Datorren ekainean bilduko da Europako Kontseilua eta bertan zehaztuko dituzte hurrengo hamarkadarako helburuak, zenbakitan. Angel Gabilondo Espainiako Gobernuko Hezkuntza Ministroa eskola uztea %10era jaistearen alde agertu zen. Gaur egun, Europako batz-bestekoa %15ekoa da. Euskal Herrian ere %15ekoa da, eta, Espainiako estatuan, aldiz, %30ekoa.



## Eskola mapa egungo beharretara moldatzeko eskatu du PSNk

Nafarroako Parlamentuan aurkeztutako mozio baten bidez, eskola mapa berraztertzea proposatu zuen apirilean PSNk. Egungo Nafarroako hezkuntza sistemaren beharrak kontuan hartuta, DBHri dagokionez bereziki, eskola mapa moldatzeko eskatu du.

Alderdi sozialistak Hezkuntza Departamentuak eskola maparen azterketa eta analisia egitea nahi du. Maria Victoria Arraiza PSNko Hezkuntza Batzordeko eledunaren hitzetan, "Nafarroako eskola mapa 1990eko hamarkada hasieran zehaztu zen, eta, beraz, ez ditu aintzat hartzen azken 20 urteetan izan diren gizarte aldaketak". Adierazi

duenez, gizarte dinamika berriak eta ikasleria anitzaren beharrak direla eta, beharrezkoa da mapa aldatzea.

PSNk aurkeztutako mozioak bi eskaera jasotzen ditu. Batetik, eskola maparen berrazterketa egitea. Horrekin batera, arreta berezia eskatu du PSNk, «azken hamarkadan Nafarroara bizitzera etorri diren etorkinen seme eta alaben hezkuntza mailan».

## Etxetik ahalik eta hurbilen

Bestetik, Hezkuntza Departamentuak DBHko etapari behar adinako garrantzia ematea eskatu du. «Ikasleek euren bizilekutik ahalik eta gertuen ikasteko aurkeztu dugu mozioa, besteak beste», azaldu du Arraizak. Egun, Nafarroako hainbat tokitako gazteek Iruñeko institutuetan egin behar izaten dituzte DBHko ikasketak, euren herrietan instituturik ez dagoelako. Hala, eskola mapa berria egiten bada, hainbat ikaslek herritik gertuago ikasi ahal izatea ahalbidetu beharko da. PSNko eledunaren hitzetan «mozioak aukera paregabea eskainiko du eskola mapa gizartearen errealitatera eta hezkuntza beharretara egokitzeko».

“Juleni ez diot inoiz esango futboleko abilitate aldetik zer egin behar duen: hori berak ikusiko du. Baina hamaikakoan solidarioa izan behar dela, bai; entrenamenduetara beti puntual iritsi behar dela, bai; eta ordezkotako dagoenean aurpegi txarrik ez dela jarri behar, bai...”

Andoni Egaña



## Hartzaindegietako langileek protesta egin dute Baionako kaleetan

Ipar Euskal Herriko hartzaindegi askotako langileek greba eguna izan zuten apirillean Frantziako Gobernuak burutu nahi duen erreforma gaitzesteko.

Frantziako Gobernuak hartzaindegi batek har dezakeen gehieneko kopurua %20 igo nahi du. Erreforma onartuko balitz, 2 eta 3 urteko haurren geletan aldi berean pertsona batek zazpi haurren ardurara izan dezake. 40 haur baino gehiago dituzten hartzaindegietan bertze haur batzuk hartzeko kopurua %20 emendatzen bada, legeak arautzen duen gehiegiko kopurua urratzen dela salatu dute sindikatuek. Hartzaindegien funtzioa haurren

hezkuntza goiztiarra suspertzea bada kopuru jakin batetik gora eginkizun hori ezin dela bermatu diote hartzaindegietako langileek.

Langileen prestakuntza ere erreformaren jomugan dago. Izan ere, bi langiletik batek tituluduna izan behar du gaur egun. Erreformaren ondorioz, titulurik ez duten pertsonen kopurua %60ra heltzea nahi du Frantziako Gobernuak.

### Ekonomiak lehentasuna

Hartzaindegietako langileek izenpetze kanpaina abiatu zuten erreformaren xedea gaitzesteko. Mila sinadurara baino gehiago bildu dituzte Nafarroa Beherean eta Lapurdin. Sinadura horiek Familien Laguntzarako Kutxako arduradunei eta Kontseilu Nagusiari helarazi zizkieten.

«Kontseilu Nagusiaren ardura da hartzaindegietako kalitatea bermatzea», sindikatuen ustez. Hezkuntzan ere irizpide ekonomikoek dute lehentasuna Frantziako Gobernuarentzat, eta hori onartezina da hartzaindegien kasuan, haurren segurtasuna delako jokoan», dio Jean Pierre Etxeberri CFDTko sindikatuko kideak.

Nafarroako Hezkuntza Sailak bertan behera utzi ditu Arantzako eta Beintza-Labaiengo euskarazko kanpaldiak. Antza denez, arrazoi ekonomikoak izan dira tarteko; Hezkuntza Sailak adierazi duenez ikastetxe publikoetako eskolazkanpoko ekintzetarako aurrekontua izugarri murriztu baita. Iaz 195.000 euroko aurrekontua zuten eta aurten, aldiz, 65.000 eurokoa. Diru horrekin, Hezkuntza Sailak, astebeteko egonaldiak antolatu ditu Arantzako urtarriletik ekainera bitartean. Iaz, Arantzako eta Beintza-Labaiengo udalekuek 873 haurrek parte hartu ahal izan zuten. Horietako 693 A ereduko haurrak ziren, eta euskara indartzeko baliatu zuten egonaldia. Krisiak, ordea, ez die guztiei neurri berean eragiten. Euskarazko kanpaldiak bertan behera geratu badira ere, ingelesezko eta frantsesezko udalekuak mantendu egin ditu Hezkuntza Sailak.

# GAIA


## Emmi Pikler (II)

### *Jatorduetako zaintza*

Montserrat Fabrés / Bilbao / febrero 2010  
Educativo durante los cuidados

12

3/ El momento de las comidas / Criterios pedagógicos  
b) interrelacionar activamente ...



← El inicio de la acción del adulto, permite al niño comprender sus posibilidades de acción

← La disminución de la actividad del adulto da paso, permite, la actividad del niño

Si el adulto interrumpe la actividad, → puede haber un momento de descansar ...

Cuando el adulto deja continuar al niño la acción iniciada, → le da a entender que comprende y acepta su actividad ...







Emmi PIKLER

**“Emmi Pikler: haurren autonomia” jardunaldietan, Euskal Herriko Pikler-Loczy sareko ki-deak ez ezik, Kataluniatik etorri-tako hizlariak ere izan ziren gu-rean; besteak beste, Kataluniako Mestres per l’autonomia taldeko kide den Montse Fabres andrea. Emmi Pikler pediarraren ekarpe-na izan zuen hizpide Fabresek, eta ikuspegi orokorretik zeha-tzerako bidaia proposatu zien jardunaldietan parte hartu zute-nei. Jatorduen unea izan zen Fa-bresen hitzaldiaren ardatz nagu-sia. Ondorengo lerroetan dago jasota Montse Fabresek Donos-tian azaldutakoa. On egin!**

**G**

## Emmi Pikler: jatorduetako zaintza unean sakonduz



Montse FABRES

Autonomiaz ari garenean, oinarri-zko hainbat ideia hartu behar ditugu aint-zat. Lehenik eta behin, haurrari aitortu egin behar zaio izateko, egiteko, auke-ratzeko eta bere kabuz erabakitze-ko duen ahalmena. Hitz potoloak dira, baina pixkanaka xehetuko ditugu.

Haurra pertsonatzat hartu behar dugu, bete-betean. Izan ere, haurrak ekintza autonomoak egiten ditu, eta ekimena dauka. Horiek guztiak haurra-ren interesetatik sortutakoak izaten di-ra, eta gogobete egiten dute. Gainera, horien bidez eskuratzen dituen emai-tzek indartu egiten dute haurra. Espe-rientzia batek beste bat izatea ahalbide-tzen dio, hots, pixkanaka, bizipenak pi-latzen joaten da. Hori dela eta, ezinbes-

tekoa da haurra subjektu gisa ikustea. Ohituta gaude haurrek gure heziketa jaso baino ez dutela egiten pentsatzera, eta ez dugu aintzat hartzen haurrek eki-teko duten gaitasuna.

Niri asko gustatzen zait praktikaz hitz egitea. Neure eguneroko jardune-an, bai eta beste irakasle talde batzuei laguntzen ere, frogatu ahal izan dut al-dez aurretik ezarritako eragiketa hauxe daukagula gure buruan: autonomia = ohiturak. Gustatu egiten zait hori aipa-tzea, ziurrenik dagoeneko konturatu-ko zinetelako autonomiak ez duela ze-rikusirik une zehatz batean egiten jaki-teko ohiturarekin. Horixe da gertatzen zaiguna: autonomia esan, eta ohiturak lantzeari ekiten diogu. Autonomia, bai-na, hori baino askoz gehiago da. Erai-kuntza bat da, prozesua bat. Autono-mia ez da soilik mugimendu trebetasu-na izatea, nahiz eta sarritan horixe uste izan. Horrekin batera, beharrezkoa da prozesu kognitiboak eta afektiboak ere garatzea. Horiek guztiak lotuta daude, eta harremana dute, era berean, hau-rak helduarekin izaten duen elkarre-kintzarekin. Guztiak oso garrantzi-tsuak dira autonomiaren eraikuntza prozesuan. Besteak beste, haurren e-ta helduaren arteko feedback horretan garrantzia handia dutelako.

Bestalde, haurren garapen auto-nomoa sustatzeak eta laguntzeak duen



# Emmi Pikler: autonomia

## Kontuan izan beharreko faktoreak

garrantzia azpimarratu nahi nuke. Lagundu egin behar diogu, dituen gaitasunei mesede eginez, ez aurreratuz... Haurrak gauzak modu autonomoan egin eta ezagut ditzan ahalbidetzea da gure lana. Hasieran esandakoa errepikatzerara noa, baina helduak aitortu egin behar ditu haurrak dituen gaitasun horiek guztiak. Heldu batekin harreman iraunkorra eta segurua izatea bermatu behar diogu haurrari. Ezinbestekoa da haurra maitatua, errespetatua eta seguru sentitzea. Eta, era berean, haurrak sentitu behar du zaintzen duen heldu horrek konfiantza osoa duela bere gaitasunetan. Autonomia izateko fidakorra izan behar du haurrak. Zerbait gertatzen zaionean helduaren laguntza izango duela jakin behar du, eta pixkanaka, helduarengan konfiantza izaten ikasiko du. Hezitzaileak konfiantza erakusten badiu, haurrak ere bere gaitasunengan konfiantza izaten ikasiko du. Hezitzailearengan konfiantza izaten ez ezik, bere buruarekin ere konfiantza izaten ikasi behar baitu haurrak.

Ezin da haurraren autonomia sustatu helduaren inposaketatik abiatuta. Atseginagatik autonomo izatea, horixe da Loczyn ikusten duguna. Autonomia alaitasunez bereganatzea, esperientziaren bidez eta ez inposatuta. Horrek esan nahi du, modu batean edo bestean, haurrari garrantzia eman behar zaiola. Izan ere, gauzak bakarrik egin nahiko ditu. Plazera senti dezala gauzak bakarrik egin ditzakeelako, hark hala nahi duelako, interesatzen zaiolako... Bere burua gauzak bakarrik egiteko gai ikusten duelako, eta indartsu sentitzen delako egingo du hori. Horre-

la, besteak beste, bere autoestimua eraikitzen joango da. Zergatik? Bada helduak horretarako aukera eman diolako, haren gaitasunak aitortu dituelako.

### Ez dadila bakarrik sentitu

Baina horrek ez du ekarri behar haurra bakarrik sentitzea. Sarritan, ohitura izaten dugu haurrari honelakoak esateko: *Zuk badakizu, egin dezakezu bakarrik, heldua zara zapatak zuk zeuk janzteko...* Oker gabiltza, haurrak ezin du sekula bakarrik utzi dugula sentitu: *Egin al dezakezu zuk? Bestela lagunduko dizut...* eta horrelako esapideak erabiltzea egokiagoa litzateke.

Gainera, haurra den aldetik erronka bati aurre egiteko eskatu ohi diegu, baina, erronka gainditzeko beharrezko gaitasunak oraindik eskuratu ez badiu, porrot egin duela senti dezake. Beraz, laguntzen diogun bitartean haurra zein unetan dagoen ikusi behar dugu. Horrela, hasi duen ekintza bete dezakeen ala ez ikusi ahal izango baitugu. Zer eska diezaioket une honetan haurrari? Edo zenbateraino itxaron behar dut berak egin dezan? Azken batean haurra ondo ezagutzea, haurrari begiratzea da.

Ekintza autonomia errespetatzeaz ari naizenean, esan nahi dut haurraren ekimenak eta haren mugimendu askatasuna errespetatu behar direla. Haurra afektiboki eta fisikoki seguru sentitzeak garrantzi handia du. Haurrak segurtasunik ez duenean, ezin du autonomia izan; segurtasunik gabe mugimendu askatasunik ez duelako. Beldurra duenean, haurrak ezin du mundura




zabaldu, ez delako seguru sentitzen. Beraz, mugimendu askatasuna eta segurtasuna guztiz lotuta daude, eta ezin da autonomiarik izan mugimendu askatasunik gabe.

Haur bat prozesu osoa gauzatu aurretik zutik jartzen badugu, haren mugimendu askatasuna mugatzen ari gara. Segurtasunik eskaintzen ez dion jarrera batean ipini dugu, eta, heldu baten menpe jarritz, ukatu egiten diogu autonomia.

### Itxaroten ikasi

Funtsezkoa da denbora ematea ere. Haurraren prozesuari itxaron egin behar zaiola, segurtasunez eta konfiantzaz. Piklerrek zioen ezin ditugula haurrak ezer egitera behartu sekula, denbora eman behar diegula. Autonomia guztiz lotuta egongo da denbora ematearekin, haurra prozesuaren zein unetan dagoen behatzearekin. So egiten eta itxaroten jakitea ezinbestekoak dira.



## Heziketa zaintza uneetan

Harremana, arreta eta errespetua, horiek dira gako hitzak zaintza uneetan. Memento horiek, nire iritziz, kalitatezkoak eta plazerean oinarrituak izan behar dute. Bai haurrari eta bai helduari dagokienez ere. Egunerokotasunean murgilduta dauden zainketa une horiek guztiak harreman iraunkorrek sortzeko une pribilegiatuak dira. Garrantzitsua da gure kargu dugun haur bakoitzarekin harreman afektiboa eraikitzea; lotura segurua, iraunkorra eta konfiantzazkoa ezartzea, hain zuzen. Haurra emozionalki aseta baldin bada go soilik egongo da prest mundura zabaltzeko eta inguruarekin harremanetan jartzeko.

Funtsezkoa da haurrez arduratzen den hezitzaile taldearen iraunkortasuna ere; eta ahal izanez gero, haur bakoitzarekin bakarkako harremana izatea. Haurrak ongi ezagutzen dituen pertsonen kopuru jakin batekin lotura iraunkorra izatea da onena, eta harreman pribilegiatu bat eraikitzea, beti, heldu berarekin. Talde batean bi edo hiru hezitzaile baldin badaude, haur talde txiki batekin harreman iraunkorra eduki ahal izatea da onena. Oso zaila da, bada, *ratioak* oso handiak izaten direlako. Dena den, bi lagunekin antola gaitzke zainketa une berezi horietan –pixoihala aldatzean, jaten ematean, lo-kuluxka tarteetan...– harreman pribilegiatu hori haur talde txiki batekin eraikitzen duena pertsona bakarra izan dadin.

Haurrak ongi ezagutzen dituen pertsona gutxi batzuekin lotura egonkorra izatea eta heldu batekin pribilegiozko harreman iraunkorra izatea ezinbesteko baldintzak dira bere buru osasune-



rako, bai eta haurrak bere lehendabiziko sozializazioa arrakastaz egiteko ere. Une horietan guztietan, garrantzitsua da haurra kide aktibotzat hartzea. Harremanak bi noranzkotakoa izan behar du, bi pertsonaren artekoa. Helduak entzun egiten dio haurrari, haren beharrik ase behar ditu. Baina, era berean, umearen ekimenei ere arreta jarri behar die. Haurraren gorputzak helduari hitz egiten dio. Haurra bere buruaren kontzientzia hartzen ari da, eta hezitzailearengandik jasotzen duen tratua erabera eraikiko du bere buruaren irudia. Hezitzailearengandik jasotzen duen horren araberakoa izango da, ondoren, gainerakoei eskaini ahal izango diona.

### Komunikazio elementuak

Guk adierazteko edo komunikatzeko dugun modua ezinbestekoa da haurrarentzat. Sarritan, komunikazioa aipatzen dugunean, hitz egiteaz soilik gogoratzen gara. Baina gure gorputz osoa ari da etengabe komunikatzen, eta haurrarekin egoteko moduak ere badu garrantzia. Begirada, ahotsaren tonua,

**Piklerrek zioen ezin ditugula haurrak ezer egitera behartu sekula, denbora eman behar diegula. Autonomia guztiz lotuta egongo da denbora ematearekin, haurra prozesuaren zein unetan dagoen behatzearekin. So egiten eta itxaroten jakitea ezinbestekoak dira.**

hitz egitea, haurrari gertatuko dena azaltzea, keinu leunak, heltzeko modua, baimena eskatzea, entzuten jakitea, haurrari behar adina denbora ematea... kontuan izan beharreko komunikazioaren elementuak dira.

Haurra leuntasunez tratatu behar bada ere, harreman mekaniko bat izateko arriskua saihestu behar da. Erritualekin, koreografiekin, gauza asko ikas ditzakegu, baina badute arrisku bat: mekanikoak izatera irits daitezkeela. Gure ekintzek, baina, ezin dute mekanikoak izan, azken baten bi pertsonaren arteko harremanaz ari garelako. Haurraren ekimena kontuan hartu behar delako. Beraz, ezin du harreman mekanizatua izan. Hezitzailearen eta haurraren arteko elkarrekintzan oinarritutako benetako harremana izan behar du. Eta ezinbestekoa da bien arteko elkarrizketa sortzea. Keinu mekanikoetara mugatzen bagara, harremanaren kalitatea galduko dugu. Erlazio batean, arreta jarri behar zaio esaten dugunari, baina baita esaten digutenari ere, bi pertsonaren arteko komunikazioa baita.

# Emmi Pikler: autonomia

## Jatorduak

Kontuan hartu beharreko hiru faktore nagusi daude jatorduaren mementoan. Lehen, haurraren behar fisikoak asetzea litzateke. Haurrak jan egin behar du, elikatu egin behar du... Azken batean, bizirik irauteko elikatu egin behar dugu gizakiok, eta haurrek baita hazteko ere.

Aintzat hartu beharreko bigarren elementua jatorduetan parte hartzen duten ohituren multzoa litzateke: gizartekoak, kulturalak... Helduak funtsezko zeregina betetzen du gizarte arau horiek jatorduetan txertatzeko unean. Hirugarrenik, haurra modu garbian, egokian eta autonomoan jateko gai izan dadin eragin behar du hezitzaileak. Beharrak eta gizarte ohiturak daude tartean, baina modu autonomoan, zikindu gabe eta behar bezala jaten ikasteko prozesua ere bada.

Halaber, garrantzi handia du jatea gauza onuragarritzat aurkezteak. Hau da, plazeragatik jateak. Horrek asko esango digu eskolan kontuan izan behar ditugun hainbat elementuren gainean: jarrerak, ingurunea, haurrei nola lagundu, jatorduetan zer eskatu... Komeni da plazerean pentsatzea, jatea bizitza osoan bidelagun izango dugun gauza atsegingarri gisa hartzea.

Lehen aipatutako gizarte ohitura horiek ez dira arau naturalak. Kulturalak jasotakoak dira, eta, beraz, pixkanaka ikasi beharko ditu haurrak. Onartu egin beharko ditu, eta mailaz maila integratuz joango da, baina inongo inposaketarik gabe. Nolabait esateko, haurra ez dugu arau horiek guztiak ikastera behartuko, gakoa pixkanaka haurrak arau horien zergatia ulertzea izango da.



Haurrak asko dauka ikasteko bizi-tzako lehendabiziko hiru urteetan: edalontzitik edaten ikasi behar du, koi-lara erabiltzen, mozten, ez zikintzen, mahaia ez narrasten, ikaskideei traba-rik ez egiten, hainbat zaporeri gustua hartzen... Aldaketa asko dira, eta gu ez gara konturatzen. Iruditzen zaigu egun batetik bestera ikasi behar dituela guz-tiak. Jatorduetan gauza asko gertatzen dira, eta garrantzitsua da une hori nola antolatuko dugun pentsatzea.

### Egiten duena aintzat hartu

Bestalde, haurraren garapena ez dute arazoek gidatu behar, eta sarri gertatzen zaigu horrelakorik familian eta, batez ere, eskolan: *haur honek ez du oraindik koi-lara hartzen, beste horrek ez du edalontzia hartzen, gaur ez du probatu nahi izan, bihar ere ez...* Behin eta berriz aipatzen dugu egiten ez duena, egiten ez dakiena, egin nahi ez duena, baina garrantzitsuena egiten duenari arreta jartzea da: *Zer egiten ari*

**Garrantzi handia du jatea gauza onuragarritzat aurkezteak. Hau da, plazeragatik jateak. Horrek asko esango digu eskolan kontuan izan behar ditugun hainbat elementuren gainean: jarrerak, ingurunea, haurrei nola lagundu, jatorduetan zer eskatu... Komeni da plazerean pentsatzea, jatea bizitza osoan bidelagun izango dugun gauza atsegingarri gisa hartzea.**

*da? Zer egiteko gai da? Zer onartzen du? Zer proposa diezaioket orain?* Lehenengo, balioa eman beharko diot egiten duenari, eta gero, pixkanaka, gehiago eskatu ahal izango diot. Azken batean edalontzia erdi hutsik edo erdi beteta ikustea da aldea. Garrantzitsua da dagoena ikustea, eta horri balioa ematea.

Eta berdin jokatu behar da haurraren garapenaren alor guztietan, garapena prozesu bat baita. Batzuetan azkarregi iritsi nahi izaten dugu helmugara. Eta guk unean unekoari balioa ematen badiogu, familiei behar bezala azaldu eta lasaitasuna transmititu ahal izango diegu. Azken batean, haurraren ikaskuntza prozesu osoari eman behar diogu balioa. Lehen esan bezala, beti izan behar dugu presente jatordua une atsegina dela. Izan ere, asko kezkatzen nau jangelara joan behar duten unean hezitzaileak tentsioan jartzen direla ikusteak. Gauza asko gertatzen dira jatorduetan eta guztiak kontrolatu nahi ditu hezitzaileak.



## Irizpide pedagogikoak

### 1.- Haurraren erritmoak, beharrak eta nahiak errespetatzea

Haurtxikiaren ordutegiak errespetatzeari buruz hitz egin nahi nuke atal honetan, sarritan oso zaila izaten baita. Galdera nagusia hau da: nola erantzunadin ezberdinetako haurrek dituzten beharrei? Erritmoa ez ezik, neurria ere hartu behar dugu aintzat. Haur guztiek ez dute neurri berean jaten. Gehienetan alde aurretik prestatuta iristen zaizkigu janariak, baina haurrek behar duten kopurua ez da berdina izaten beti. Batzuei platera beteta ipintzen diegu, eta horrela, ezin dute sentitu platera guztiz amaitzeak ematen duen plazera.

Era berean, zapora eta uki berriak ere pixkanaka eskaini behar zaizkie, haurbakoitzak bere momentua baitaika. Akaso amak esango digu hasia dela etxean gauza berriak probatzen. Orduan, guk ere saiakera egingo dugu, baina aurretik jaten zuen hori erroto kendu gabe. Pixkanaka joango gara berria sartzen, haurra esperientzia berri

horretan murgiltzen joan dadin. Zenbaitetan bi gauza berri ere proposatzen dizkiegu aldi berean. Bada, egokiagoa da banaka egitea, aldaketa handia baita haurrentzat. Haurrak erantzuteko duen gaitasuna ere errespetatu behar da. Haurrak esan egiten digu ez duela aldaketarik nahi. Haren erantzuna errespetatzea gauza berri bat eskaintzen diodanean arreta osoa eskaintzea da. Erantzuteko gaitasunak behar bezala funtzionatzen ez badu, elikadura arazoak sor daitezke. Batzuk gero eta gutxiago jaten hasten dira, jatea atsegin ez den zerbait bilakatu delako berriantzat. Haurrek badute erantzuteko gaitasuna, baina behin eta berriz gaitasun hori garatzeko aukera ukatzen badiegu, ez dute erabiliko eta galdu egin dezakete.

Halaber, haurraren garapen prozesua errespetatu behar da bere parte-hartzea mailakaturik izan dadin. Zer esan nahi du horrek? Esaterako, garapen psikomotorra beharrezkoa da koi-

lara bat hartzeko. Eta guk, sarritan, beharrezko garapena izan aurretik, koilarari heltzeko eskatzen diogu. Eta gainera, erabiltzen jakin dezala, eta ez dadila zikindu, eta ez dezala jolas egin jatorduan... Baina prozesu bat da, eta haur guztiak ez dira prozesu horretan une berean egoten. Hori dela eta, hasieran jatordua banakakoa izatea komeni da, hainbeste aldaketa izaten dituen prozesuan lagundu ahal izateko.

Egarria duenean ere errespetatu behar da haurra. Gorputzak beharrezkoa du ura, eta garrantzitsua da, haurrak egarria sentitzen duenean ura eskuratzeko aukera izatea. Askotan, eskoletan, hezitzaileok erabakitzen dugu haurrak noiz edango duen ura. Hark, ordea, egarria sentitzen du, beharra dauka eta, zerbait egitera doa. Zer egin dezaket nik haurrak bere kabuz edateko aukera izan dezan? Edo zer egin dezaket haurrak bere keinuen bidez egarria duela adieraz dezan? Ura edateko aukera kontrolatzen badugu, haurraren gaitasun bat mugatzen ari gara. Azken batean, desio bat izan du, eta sentitu duen egarria asetzeko edalontzia hartu eta ura edateko bidea ixten ari gara gu. Beraz, egarria duenean ura eskuratu ahal izateko aukera errespetatu behar dugu.

Elikagai bat probatu nahi ez duenean ere errespetatu egingo dugu. Berria delako, koloreagatik, usainagatik, ukiagatik, haurra igarotzen ari den uneagatik, hezitzailearekin duen harremanagatik... Alderantziz ere gertatzen da. Haurrak gehiago nahi badu ere, errespetatu egin beharko dugu: *Apur bat gehiago nahi al duzu? Emango al di-*



# Emmi Pikler: autonomia

*zut gebiago?* Dena den, beti izango da muga bat eta garrantzitsua izango da haurra amaiera horretarako prestatzea: *Hauxe izango da azkena, ados?* Amaitzen ari zara dagoeneko! Hezitzaileak jartzen du muga, hark ezartzen du amaiera. Mugak zehaztea ere funtsezkoa da autonomiarako. Modu batean edo bestean amaitzera doala jakiteak ere segurtasuna emango baitio haurrari. Badaki amaitzera doala, hezitzaileak hala azaldu diolako.

Zailena, dena den, haurrak keinue bidez, hitzez edo mugimenduekin esandakoa errespetatzea da. Batzuetan baztertu egiten du platera edo hezitzaileari eman, zenbaitetan baita janaria bota ere. Azken batean entzun egin behar diogu haurrari, eta Piklerrek behin eta berriz esaten zuena presente eduki: “Ez eman haur bati gogoz hartuko ez duen koilarakada bakar bat gehiago”. Eta haurrak berehala esaten digu noiz ez duen gehiago jan nahi. Hezitzaileak asko kezkatzen dituen gaia da azken hau, baina haurraren autonomiaren parte da, eta aintzat hartu beharra dago.

## 2.- Elkarreteragina

Hezitzailearen ekintzak eta haurrenak modu aktiboan ipini behar dira elkarrekintzan. Jatorduetan hezitzailearen egitekoa ez da, soilik, haurraren sabela betetzea. Harreman bat sortzen da, komunikazioa dago. Hezitzailearen inplikazioa eskatzen du, eta haurraren desioak betetzean datza, ez da ahoa betetzea bakarrik. Plazerak presente egon behar du, eta gure jarrerak egokia izan behar du, ez ditugu mekanikoki elikatu behar.

Gainera, tentu handiz aritu behar dugu haurrei helarazten dizkiegun mezuekin, gure hitzekin, gure axolagabe-

tasunarekin. Askotan jakin badakigu ez dugula haserretu behar, baina platera kentzen diogu haurrari ziztu bizian, ia jaramonik egin gabe. Gauza asko esaten ari gara keinu horrekin: “Ez naiz haserretuko, ados, baina ez dut onartzen gehiago jan nahi ez duzunik!” Beste batzuetan haurra limurtzen saiatzen gara, oso era finean: “Ea, azkeneko koilarakada, besterik ez...” Ahots liluragarria eta begirada ezin ederragoa balia ditzaket, baina beste mezu bat helarazten ari naiz haurrari; hark ezetz esan arren, ni ez naizela onartzen ari. Ohituta gaude jatorduari amaiera guk ematen, guk dakigu-eta zer behar duen haurrak. Horregatik diot oso lan zaila dela. Baina posible dela ohartzen zarenean, haurrarekin duzun harremana eta konfiantza izugarri aldatzen dira. Hasieran jatordua larritasunarekin lotzen bazen ere, pixkanaka gozatzeko une bilakatzen da bientzat.

## Ez saiatu haurra konbentzitzen

Baina oso zaila da. Izan ere, kontuan hartu behar dira bakoitzaren bizi-penak ere. Esaterako, edozein taldetan bi hezitzaile baldin badaude, oso antzekoa den egoera baten aurrean guztiz ezberdinak diren bierantzunikus ditzakegu. Oso garrantzitsua da akordioetara iristea, betiere oso irizpide sendotan oinarrituta eta egiten dugun horretan benetan sinetsita. Bestela, oso zaila izango da. Haurrak ez jatea axola ez balitzaigu bezala jokatzeko badugu, edo haurra oso modu finean konbentzitzen saiatzen bagara, esan dezakegu ez gara haurra benetan behar den bezala zaintzen ari, hutsune bat dugula.

## 3.- Prestaketa

Ezinbestekoa da zaintza uneetan zer gertatuko den aurreratzea. Hezi-


**Oso garrantzitsua da akordioetara iristea. Haurrak ez jatea axola ez balitzaigu bezala jokatzeko badugu, edo haurra oso modu finean konbentzitzen saiatzen bagara, esan dezakegu ez gara haurra benetan behar den bezala zaintzen ari, hutsune bat dugula.**

tzaileari segurtasuna ematen dio, zer esanik ez haurrari. Behar dugun guztia antolatu behar dugu; esaterako, adurzapia haurrak jan behar duenean ipini behar da, ez lehenago, eta, beraz, ez guztiei batera. Izan ere, haurrari adurzapia jartzea oso garrantzitsua da gero etorriko dena jakiteko, seinale argi bat da. Eta ez bada haren txanda, kontu handiz ibili behar da, ez baitugu zain eduki behar.

Era berean, haurrari tresna eta altzari egokiak eskaini behar dizkiogu. Guztia egon behar du egokituta, haurrak bere autonomia prozesua garatzeko aukera izan dezan. Altzariak erosoak ez badira, koilara handiak ematen badizkiogu, hartu ezin dituen edalontziak ipintzen baditugu... nola baliatuko du bere autonomia haurrak?

## 4.- Erritualak antolatu

Garrantzitsua da erritualak edo koreografiak ikastetxeko talde pedagogiko osoak adostuak izatea: *nola egingo dugu? Zer egingo dugu lehenabizi?* Gauza txikiak izanagatik ere adostu egingo ditugu eta haurrari erreferente zehatza eskaini. Ordutegiak, espazioak, helduarekiko harremanak..., erreferentzia horiek guztiek segurtasuna ematen diote haurrari, eta ahalik eta argienak izan behar dute.



## 6.- Piklerrek utzitako ondarea

Garrantzi handia du atseginez jateak eta modu egokian elikatzeak zer esan nahi duen jakiteak. Loczyko esperientziak hainbat ekarpen egiten dizkigu: presente egoteko bide bat eta samurtasuna eta ongizatea eskaintzeko modu bat erakusten dizkigu. Era berean, haurraren beraren ekimenak errespetatzeko esaten digu, autonomiarako bidean eta sozializazio prozesuan haurraren alboan egoteko. Jatorduek samurtasunez betetako une izan behar lukete, baita elkarriketarako eta konplizitaterako tarte ere. Badakit horiek guztiak hitz potoloegiak izan daitezkeela. Badakit zaila dela, baina posible da.

Izugarri gustatzen zaidan esaldi batekin amaitu nahi nuke hitzaldia: haurrari bere garapen prozesuaren protagonista izaten utzi behar diogu. Lagundu egin beharko diogu, betiere, haren garapen erritmoa eta haren ikaskuntza prozesua errespetatuz, esku-hartzerik gabe. Horrela egiten badugu, haur la-saiagoak, autonomoagoak eta osasuntsuagoak izango ditugu, bai fisikoki eta baita psikikoki ere. Horixe da Emmi Piklerrek Loczyn egindako lan guztiarekin uzten digun ondarea.

Era berean, erraztu egin behar dugu haurrak modu aktiboan parte hartu ahal izatea. Hitz eginez, janaria bere aurrean zerbitzatuz, eskuak eta besoak libre dituela ziurtatuz, edalontzia eta koi-lara eskura jarritz... Ikasketa prozesu bat da, eta haurrak saiakera ugari egin behar ditu aurrera egiteko.

Txikitatik jatorduetako arauak eza-gutzea eta pixkanaka ulertzen joatea ere garrantzitsua da. Jakin egin behar du jatordua ez dela jolas egiteko unea, ezin duela ahoa beteta duenean hitz egin, eserita jan behar duela, ezin duela besteen janaria ukitu... Uste dut garrantzia duela haurrak arau horiek guz-tiak ezagutzeak, haren segurtasun senti-mendua indartzeko baliagarriak izan-go baitira. Azken batean, jatordua ere ekintza soziala baita.

## 5.- Nola jan?

Lehenengo, janaria bakarka eman-go diegu, hezitzailearen belauen gainean ipinita. Zergatik? Etzateko aulkie-tan zaila delako mugimenduak erres-petatzea. Haurrak gure belauetan ese-rarazten baditugu, elkarrekintza han-diagoa da, elkarriketa tonikoa ere handiagoa da, eta errazagoa da haurrak bere mugimenduarekin helarazten di-dana jasotzea. Gainera, erosoagoa da, bai haurarentzat eta baita hezitzailea-rentzat ere. Begiradarekin kontaktuari eusteko ere erraztasun handiago es-kaintzen du jarrera horrek. Lasaitasun handiagoa dago, eta baita kontzentra-zio handiagoa ere.

## Haurra prest dagoenean

Gainera, jolasean dabiltzan beste umeek ezin dute janaria ukitu, eta ez dute jaten ari den haurraren gana iriste-ko modurik. Askotan etzateko aulki horietan bat-batean haurrak hurbiltzen zaizkigu, ez diote haurrari jaten uzten,

ez digute jaten ematen uzten, ez gaude eroso, urduri gaude, guztia kontrolatu nahian... Eta horrela zaila da jatordua plazer une bilakatzea.

Baina noiz eseriko dugu haurra aulki batean, noiz egingo diogu proposa-men hori? Bada, bera horretarako gai denean. Haurra modu autonomoan esertzeko eta zutitzeko gai denean. Be-tiere, altzari egokiak eskaintzea izango da gure egitekoa. Haurrak ulertu egin behar du zerespero dugun beragandik. Haurrak erakutsi egin behar du parte hartzeko gogoia duela, esertzeko gai dela, koilara hartu nahi duela... Adiera-zi egingo digu bere unea dela. Akaso guk aldaketa proposatzen diogu, baina haurrak oraindik ez du nahi, ez da gai sentitzen. Ez da ezer gertatzen, berriro belauen gainean eseraraziko dugu, eta kitto! Eta ahal izanez gero, banaka eman behar diegu jaten. Ezin dugu bost edo sei hurrekin batera egin. Gauza asko ikasi behar dute, prozesu berri bat hasi dute eta hezitzaileak ezin die guz-tiei batera erantzun, oso zaila da. Ondoren, pixkanaka, egin ahal izango ditugu talde txikiak, baina badakit zaila dela. Egunerokoan ez dela horrelakoetara-ko aukera handirik izaten.



# mariam bilbatua

## *ELKARRIZKETA*

Mondragon Unibertsitateko HUHEZIk irakaslea.

“Metodologian hausnarketa sakona egin behar dugu. Zergatik ez dituzte konpetentzia handiagoak lortzen ikasleek? Hori da gakoa”





# **mariam** **bilbatua**

**E**

**“Gaiak hurrek bizi duten, ikusi duten, egin duten... zerbaitekin lotzen saiatu behar du irakasleak. Askotan ez diogu girotze horri behar duen denbora eta garrantzia ematen. Egindako azterketan ikusi ahal izan dut zentzua emateak eta girotzeak eragin handia duela inplikazioan. Haurren ulermen prozesua askoz errazagoa da, zertarako egiten den jakiten dutenean.**

**”**

Urte hasieran defendatu zuen Donostian Mariam Bilbatua Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko irakasleak bere doktorego tesia. “Irakasle-ikasle eta ikasle-en arteko interakzioak irakurketa eta idazketaren ikaste prozesuaren hastapenetan”, horixe izan du aztergai. Lan horretatik ateratako ondorioak eta hezkuntza, oro har, izan ditu hizpide Hik Hasirekin izandako solasaldian.

Marian Bilbatuak hezkuntzaren gaineko artikulua eta lan ugari argitaratu ditu. Gainera, hainbat argitalerarekin materialgintzan aritua da. Eskarmentu handiko irakasle eta ikerlari ezaguna ere bada.



## **Zein izan da zure tesiaren aztergaia?**

Tesian, bereziki, ikasle eta irakasle-en arteko elkarrekintzak aztertu ditut testuinguru zehatz batean. Azterketa irakurketa eta idazketaren ikaskuntza prozesuaren hastapenetan, hau da, bost urteko geletan egin dut. Lau gela aztertu nituen, eta nire helburua gelako komunikazioa aztertzea izan zen. Gelako elkarreraginak nola eraikitzen diren ikusi eta eraikuntza horretan zein faktorek eragiten duten behatzea. Era berean, elkarrekintza horrek ikaskuntza prozesuan nola eragiten duen aztertu nahi izan dut.

## **Irakasle eta ikasleen arteko komunikazioa?**

Bai, bien arteko elkarrekintza. Nik arreta irakaslearengan jarri nuen; bere esku-hartzeak ikasleen ikaskuntza prozesuan zein eragin duen ikusteko. Hasierako asmoa zen ikasturtean zehar elkarrekintzan zein garapen ematen zen ikustea. Horretarako hiru sekuentzia didaktiko grabatu nituen, baina segituan ohartu nintzen ezinezkoa zela guztiak aztertzea, datu kopuru ikaragarria zelako. Orduan erabaki nuen azterketa osoa sekuentzia didaktiko baten inguruan egitea. Hasierako asmoa, azterketa hainbat testu generoren inguruan egitea bazen ere, amaieran mugatu egin behar izan nuen, eta Olentzerori idatzitako gutunaren inguruan egin dut ikerketa. Lau gela izan nituen aztergai, bi eremu erdaldunetakoak eta beste bi eremu euskaldunetakoak. Bide batez ikusi nahi nuelako zein eragin duen ama-hizkuntzak irakasle-ikasle-en arteko elkarreragin horretan. Laurak, baina, D ereduko gelak ziren.

Komunikazioa izan dut, beraz, az-

tergai; eta nagusiki, irakaslearen berbaldia aztertu dut. Baina irakaslearen berbaldia ez modu isolatuan, baizik eta gelan kokatuta. Sekuentzia didaktiko zehatz batean, eta jarduera zehatz batzuetan. Ikuspegi soziokulturaletik behatu ditut irakaslearen berbaldiak, eta irakasle-ikasleen arteko komunikazioak nola eragiten duen ezagutzaren erakuntzan.

### **Eta zer ikusi zenuen sekuentzia horietan?**

Olentzerori gutuna egitea izan zen aukeratutako sekuentzia, hala adostu genuen. Alde batetik, ikusi nahi nuen irakasleek aitortzen zuten ikuspegi metodologikoa, hots, ikuspegi eraikitzailea, nola islatzen zen geletako praktikan. Adostutako sekuentzia irakasle bakoitzak bere gelan nola garatzen zuen ikusi nahi nuen. Hori zen helburuetako bat: irakaslearen arteko ezberdintasunak ikustea. Baina baita, desberdintasun horietan ama-hizkuntzak zein eragin izan zezakeen aztertzea ere.

Beste aldetik, ikaste prozesuan zehar irakasleek beren esku-hartzea nola aldatzen zuten ere aztertu dut. Teorian banuen hipotesi bat: sekuentzia didaktikoan zehar irakaslearen esku-hartzea nolabait ikaslearen esku geratuko zela. Transferentzia bat egongo zela. Hau da, sekuentzia didaktikoaren hasieran irakaslearen interbentzioa zehatzagoa izango zela, eta gero, ikaslearen esku utziko zuela. Hipotesi hori ez dut baieztatatu, sekuentzia didaktikoaren bilakarak baino jardueren xedeak garrantzi gehiago eduki baitute.

Horretarako, hainbat elementu aztertu ditut. Batetik, "hizketako-egin-tzak", hots, ea zertarako erabiltzen duen hizkuntza irakasleak. Galdetzeko, informazioa emateko, *feedback* emateko... Era berean bere berbaldien bidez jardueraren inguruan zein kontrol egiten duen ere aztertu dut. Hau da, zein motatako laguntzak ematen dizkieten: galdera orokorrak, zehatzak, irtenbideei zuzendutako informazioa eskaintzen dutenak, pentsaraztekoak... Beraz, berbaldiaren funtzioak,



funtzio horien aldaketa eta kontrola aztertu ditut. Horrez gain, irakasleek komunikazioa zein eskemaren arabera antolatzen duten ere behatu nahi izan dut.

### **Nolako eskemak dira horiek?**

Hainbat eredu daude patroio edo eskemak aztertzeko. Patroi bat Sinclairrek eta Coulthardek dezente aztertu dutena da: HEF (Hasiera, erantzuna, *feedback*) eskema, hain zuzen. Eskema horretan irakasleak hasiera ematen dio komunikazioari, ikasleek erantzun egiten dute eta irakasleak *feedback* bidertzen du. Esan dezakegu irakaskuntza tradizionalaren patroio klasikoa edo eskema klasikoa dela hori. Dena den, badago beste eskema bat, ikuspegi eraikitzailearekin bat etor daitekeena: eztabaidaren eskema. Kasu horretan irakasleak gai bat proposatzen du, baina ikaslearen esku uzten du elkarriketa. Beraien arteko parte-hartzea bermatzen saiatzen da, hasieran proposatzen duen galdera irekia izaten da, normalean, eta arrazoitzea eskatzen die.

### **Orokorrean, zeintzuk izan dira atera dituzun ondorio nagusiak?**

Lehenik eta behin, berbaldiak garrantzia handia duela ikaste prozesuan. Informazioak emateko, galderak planteatzeko, *feedback* emateko moduek eragina eduki dezakete ikaste prozesuan. Horrekin batera, jardueren garrantziak ohartu naiz. Jarduerak berbaldia kontestualizatzeko edo deskontestualizatzeko balio du. Izan ere, haur txikiak zaila egiten zaie euskarririk gabe beraien aurrezagutzak aktibatzea, beraien arteko komunikazioa sustatzea... Horrela, tartean jarduera zehatz bat ez dagoenean, gehiago ematen da HEF eskema. Irakasleak joan behar du galdetzen, eta esan dezakegu ez dela ikaslearen bapateko parte-hartzea sustatzen. Aldiz, haurrek eurek aurretik zerbait egin badute, edo etxetik ekarri badute zerbait... Hau da, esateko zerbait baldin badute, errazago lortzen da komunikazioa. Bestalderetik, ikusi dut oso garrantzitsua dela girotzea. Girotzeak ere eragin izugarria duela ikaslearen parte-hartzean. Eta girotze horretan oso garran-



tzitsua dela ikasleen bizipenak aktibatzea.

**Irakasleak, orduan, haurrenganaino iristen saiatu behar du?**

Bai, inplikazioa bilatu behar du. Gaiak haurrek bizi duten, ikusi duten, egin duten... zerbaitekin lotzen saiatu behar du irakasleak. Askotan ez diogu girotze horri behar duen denbora eta garrantzia ematen. Eta uste dut hori ez dela txikiekin bakarrik gertatzen, maila guztietan pasatzen da. Egindako azterketan ikusi ahal izan dut zentzua emateak eta girotzeak eragin handia duela inplikazioan. Haurren ulermen prozesua askoz errazagoa da zertarako egiten den jakiten dutenean. Hori izango litzateke ondorio bat; zein garrantzia duen zentzuak edo jarduera kontingenteak egitea.

**Eta horrek eraginik ba al du emaitzetan?**

Jaso ditut, baina ez ditut haurren ekoizpenak aztertu, eta hori da nire ikerketaren mugetako bat. Baina, momenturen batean moztu behar nuen datuen azterketa eta prozesuan zentratzea erabaki nuen... Dena den, ikusi ahal izan dut irakaslearen berbaldiak eta ikaste prozesuan sortzen diren elkarrengainak zein eragin duen ikasleen erantzunetan, hots, haurrak nola jabetzen diren ezagutzaz eta nola islatzen duten ikasitakoa beraien erantzunetan, eta ikasitakoa erabiltzeko erakusten duten autonomian edo autonomia ezan. Autonomiaren ildotik nire hipotesia ez nuen baieztatu, izan ere, prozesuaren bukaeran ikasleen ekoizpenaren aurrean ikasitakoa berreskuratze-

ko estrategiak bultzatuko zituztela espero nuen, jardueraren kontrola ikasle- en esku utziko zutela espero nuen eta ez zen horrela gertatu. Sekuentzia didaktikoan bi momentu behatu ditut. Batetik lanketa saioak: horietan irakasleek eta ikasleek elkarrekin eraiki zuten gutun eredu bat. Horma-irudi moduko bat eta beste gutun batzuk irakurri eta beraiek ezagutzen zituzten gauzak komentatuz jostailuen zerrenda osatzen joan ziren. Hori aurrean zutela, nork bere gutuna idatzi zuen irakaslearen laguntzaz. Nire hasierako hipotesiaren arabera, eredu hori eraikitzeko prozesuan irakasleak laguntza handia eman- go zien ikasleei. Eta gero, idazteko mo- mentuan, nolabait, ikasleen esku utzi- ko zuen ekoizpena. Hori, baina, ez da gertatu. Irakasleek produktua jarri zu- ten xedetzat, produktua ongi egitea. Beraz, ekoizpena ikasleen esku utzi be- harrean, areagotu egin zuten kontrola.

**Gela barruan gertatzen denari erreparatzea garrantzitsua da oso.**

Hala da bai, ondorio nagusi gisa ai- patuko nuke zein garrantzitsua den ikasgela barruan gertatzen dena ikus- tea. Formazioan egin ditugun ikastaro- etan maiz landu ditugu irakasleekin se- kuentzia didaktikoak. Baina progra- mazioan geratu gara beti. Edukiak hau- tatu, egoera funtzional bat identifikatu, prozedura bat adostu... Hori guztia pa- perean idaztea oso ongi dago, baina, gero, gelara joatean, ohartzen gara pro- gramazioa egiterakoan kontutan edu- kitzen ez ditugun gauza asko gertatzen direla. Eta nola ez, gelako komunika- zioak duen garrantzia ere aipagarria da. Irakasleok gure berbaldien gaineko kontzientzia handia eduki beharko ge- nukeela uste dut. Oso inportatea da gu- re hizketaldien bidez erabiltzen eta bul- tzatzen dugun komunikazio ereduak.

**Ikasleen interesetatik abiatzea garrantzitsua dela esaten da beti. Baina praktikan egitea zaila dela ikusi duzu ezta?**

Paperean horrelakoak oso ongi ge- ratzen direla esan dut ezta? Eta horixe

**E**

**“ Erabiltzen duzun hizkuntzaren arabera, arrazonamendua bultzatzen ariko zara, gauzen arteko erlazioak bideratzen, zure menpe egongo da edo bere kabuz pentsatuko du... Eta irakasleok horren kontziente izatea funtsezkoa da transmisioan oinarritutako hezkuntza batetik ikasleek euren kabuz pentsatu, eta autonomia izango duten hezkuntza batera pasatu nahi badugu. ”**

idazten dugu, beraien interesetik abiatu behar dela, funtzionala izango dela testua... Baina gelara sartzerakoan prozesuan funtzionala izan daitekeen zerbait oso abstraktua bilakatu dezakegu. Gure azterketaren kasuan, helburua Olentzerorigutuna idaztea zen, ez testu genero bat lantzea. Baina etengabe gutuna nola idazten den esateko formulak idazten baditugu, eta bizitzatik urruntzen bagara, oso erakargarria den zerbait oso gauza formala, artifiziala, pisutsua bilakatu dezakegu. Eta horrela, haurrentzako duen interesa erabat galduko du. Horregatik ikusten dut prestakuntzan gauza horietan hausnartu behar dugula.

### **Baina egoera horiek ezagutzen ez badituzu, formazioaren bidez hori transmitzea ez al da oso zaila?**

Nik orain egingo dudana hausnarkeza ez da berria. Gu Mondragon Unibertsitateko irakasle eskolan horren inguruan ari gara hausnartzen. Eta ondorio batzuk ere atera ditugu: guk programatutako gauza batzuk, gure berrikuntzetan aurreikusitako zenbait gauzek, ez dute funtzionatzen. Beharbada lotura hori egiten ez dakigulako. Eta hordago, nire ustez, guztiontzako erronka.

Bakoitzaren interesen muinera jo behar da. Horrek izugarritzako garrantzia du metodologian. Norbera parte sentitzea, hain zuzen. Emozioekin lotu

daiteke, baina baita garrantzitsua sentitzearekin ere. Ikasten ari garenak zentzua duela, funtsezkoa dela ohartzearekin, alegia. Are gehiago, baita gauzak sakontzeko gaitasunarekin ere. Edo azalean ez gelditzeko gaitasunarekin.

Egindako azterketan bada galdera zailak egiten dituen irakasle bat. Baina erronka moduan botatzen ditu; erabiltzen duen intonazioaren bidez, pentsatzera gonbidatzen ditu umeak. Aldiz, beste batzuk oso modu lauan egiten dute hori. Beraz, ez dakit emozioetatik soilik aztertu daitekeen. Izan ere, esaten duen guztiak garrantzia duela ulertarazi behar die irakasleak haurrei. Eta hori berbaldietan, harridura keinuetan... nabaritu egiten da.

### **Garrantzia handia ematen zaio ahozkotasanari, eta zure azterketa ere bide horretatik joan da.**

Bai, hori da. Hizkuntza ikaskuntza prozesuan modu konzientean nola erabil daitekeen ikusi nahi nuen. Eta ez, soilik, hizkuntza aberasteko. Izan ere, askotan ahozkotasuna aztertzen dugu hizkuntza objektu bezala. Nik, aldiz, ezagutza orokorrean ipini dut arreta. Ezagutza eraikitzeko prozesuan ulermen partekatua eman dadin irakaslearen hizkuntza erabiltzeko moduak zeresan handia dauka. Ez, soilik, bere hizkuntzaren aberastasunak. Baizik eta, intenzionalitateak.



### **Zer da ulermen partekatua hori?**

Bada, ebaluatu ahal izateko soilik galdetzen baduzu, ez duzula erantzun bera jasoko. Esan duena arrazoitzeko eskatzen ez badiozu, egiten dituzun galderen bidez konparaketak bultzatzen ez badituzu... ez duzu haurrengandik emaitza bera jasoko. Erabiltzen duzun hizkuntzaren arabera, arrazonamendua bultzatzen ariko zara, gauzen arteko erlazioak bideratzen, zure menpe egongo da edo bere kabuz pentsatuko du... Eta ez dakit irakasleok horren guztiaren jakitun ote garen. Eta horren konziente izatea funtsezkoa da transmisioan oinarritutako hezkuntza bategi ikasleek euren kabuz pentsatu, eta autonomia izango duten hezkuntza batera pasatu nahi badugu.

Hori da, ikerketa honetan ikusi dudana, baina baita nire praktikan somatzen dudana ere. Azken batean nik ere parametro berdinekin egiten dudalako lan.

Aldatu dugu formatua, ados, baina aldatu al dugu ikasteko era? Ez da nahikoa izango irakasleen artean beste dinamika bat sortzen ez badugu: inplikatu, pentsatu, konparatu, zentzua



“  
Helburua ez  
da trebetasun zehatza,  
jarduera globala  
baizik. Hor erakutsiko  
dugu benetan  
konpetenteak garen  
ala ez. Beraz,  
jarduerak aldatu behar  
ditugu. Irakasle  
moduan zeren aurrean  
aurkituko garen eta  
arazo edo erronka  
horiei nola aurre  
egingo diegun  
pentsatu.”

eman... Oso lan zaila da. Gainera, guk  
egin behar dugu bidea, baina ikasleak  
ere ohituta daude transmisioan oinarri-  
tutako ikaskuntza batean aritzera.


**Horregatik, besteak beste,  
ikasleentzat salto handia izango  
da konpetentziak jorratzea.  
Gainera Europatik, kanpotik  
ezarria izateak, ez al du are  
gehiago zailtzen?**

Bai, kanpotik dator, baina beharba-  
da ezinezkoa zen hori barrutik atera-  
tzea. Horretarako sistemak mobiliza-  
tzeko gaitasuna eduki behar du. Barru-  
tik atera behar duen zerbait da, baina  
irakasleek onartu egiten badute beren  
gelan %30eko porrota egotea... Kanpo-  
tik etorri beharko du norbaitek hori  
mugitzera, ezta?

**Baina konpetentziak bultzatzen  
diren bitartean sistema bera  
mantentzen bada? Esaterako  
hautapropa edo selektibitatea?**

Bai, egia da, sistemak berak aldatu  
beharko luke. Dena den, nik uste dut  
aldaketa horrek bereziki eragin behar  
duela roletan. Formazioan hori landu-  
ko nuke bereziki. Lehen aipatu dudan  
bezala, konpetentziak lantzeko bada-  
kigu irakaslearen rola aldatu behar du-  
gula. Aldatu behar ditugula jarduerak,  
aldatu behar ditugula baliabideak eta  
aldatu behar dugula, nolabait, ikasleen  
parte-hartzea.

Orain gutxi, prestakuntza saio ba-  
tzuetan egon naiz eta erabili dugu An-  
toni Zabala irakasleak erabiltzen duen  
irudi bat. Niri beharbada ez zait gehiegi  
gustatzen erabiltzen duen eredu baina  
tira. Esaten du konpetentzien lanke-  
ta futbol zelai batekin alderatu dezake-  
gula. Futboleko entrenamendu zeha-  
tzak daude, baina guztia testuinguru  
batean dago kokatua, hau da, partida-  
ren unean. Beraz, jarduera zehatz bat  
dago eta jarduera horretan erabakiak  
hartzeko une batzuk daude. Besteekin  
kontatuz, estrategia egokiena hautatu  
behar duzu. Une horretan irakasleak  
edo entrenatzaileak zein paper joka-  
tzen du? Nolabait eremu horretan dau-



den elementu guztiak kontutan hartu  
behar ditu, gauza zehatzetan eta bakoit-  
zaren beharren arabera laguntza espe-  
zifikoa eman, entrenamendu espezi-  
fikoak eskaini... Entrenamendu horiek,  
baina, ez dira modu isolatuan egin be-  
har, jarduera orokor bati begira baizik.  
Horixe da ideia. Hau da, konpetentzien  
lanketan ezin dugula trebetasun zeha-  
tzetara mugatu. Trebetasun zehatz ho-  
riek jokaldi edo eremu orokor batean  
txertatu behar baititugu.

Ezagutza eta prozedura zehatzak  
menperatu behar ditugula argi eduki  
behar dugu, baina horiek guztiak  
-konpetentziak direnak behintzat-  
egiten jakin horren inguruan txertatu  
behar ditugu. Eta prestakuntzarekin  
zuzenean lotuta honakoa da lehenen-  
go ondorioa: helburua ez da trebetasun  
zehatza, jarduera globala baizik. Hor  
erakutsiko dugu benetan konpetente-  
ak garen ala ez. Beraz, jarduerak aldatu  
behar ditugu. Nire kasuan, unibertsita-  
tean, jarduera profesionalekin lotu be-  
har dugu. Irakasle moduan zeren au-  
rrean aurkituko garen eta arazo edo  
erronka horiei nola aurre egingo die-  
gun pentsatu. Eta uste dut lanean ari di-  
ren irakasleei begira gauza bera egin  
beharko genukeela.

Konpetentziak garatu nahi baditu-  
gu, gauden lekutik zein aldaketa eman  
beharko genituzkeen aztertu beharko  
genuke.

Uste dut, une honetan, betiko eske-

metan jausteko arriskua dugula. Orain kompetentziak datozela eta, irakasten diegu nola programatzen diren kompetentziak, zeintzuk diren irizpideak kompetentzia bat ondo definitzeko, zehazten ditugu kompetentzia bakoitzaren inguruan egon daitezkeen jarduerak, ebaluazio irizpideak... Uste dut horretan geratzeko arriskua daukagula eta hausnarketa sakon bat egin beharko genuke. Zer lortu nahi dugu? Zein joko eremutan garatuko da ezagutza hori? Idatzizko hizkuntzan, ulermenean... Zer behar du ikasle batek testu on bat idazteko? Horiek dira egin beharreko galderak. Nola garatu estrategia zehatzak hori lortzeko? Nola bermatu estrategia horiek erabiltzeko gai izango dela?

**Horrekin batera, dena den, beharrezkoa izango da hezkuntzak daukan garrantzia sentitzea. Bokazioa elikatu al daiteke?**

Ez dakit hori transmititu daitekeen edo sor daitezkeen horren inguruan hausnartzeko egoerak. Nik esango nuke, zenbait irakasgaitan saiatzen garela ikasleen arreta hor fokalizatzen. Baina askotan, eta hasierako formazioaz ari naiz, zaila egiten da eskola ezagutu gabe hori sentiaraztea.



Bestalde gure ikasleek badute nola-baiteko sozializazioa eskoletan. Eta han ikusten dute gurean entzuten dutena eta ondoren bizitzen dutena bat datozen edo ez. Ez da transmisio soila. Berriak gai izan behar dute ikusten dituzten gabezien aurrean ere jarrera aktiboa izateko. Hori da niretzat zailena.

Orain gutxi praktika aldiari buruz hitz egiten aritu gara, eta askotan aipatzen zuten: “fakultatean ikasi dugun utopia...”. Bai, bai. Utopia hitza erabili dute etengabe! “Utopia horrek ez dauka zer ikusirik errealitatearekin!”, esaten digute. Horren aurrean sentitzen dut gure egitekoa dela honakoa esatea: zuek utopian pentsatu behar duzue. Ez duzue pentsatu behar eskola errealitatea dela eta formazioa dela utopia.

**Gurean bada kultur eta hizkuntza errealitate berezi bat. Nafarroan, Iparraldean... Zein utopiarantz joan beharko genuke.**

Tesiarekin eta maneiatu ditugun gogoetekin bat datorren ideia da, eta oso garrantzitsua da niretzat. Adibide batekin azalduko dizut:

Mondragon Unibertsitatean ikasgai batean, euskal curriculumari sarrera emateko simulazio antzeko bat egiten dugu, jolas bat. Ikasleak binaka jartzen ditugu eta lehiaketa moduko bat antolatzen dugu. Minutu batean bururatzen zaizkien emakume ospetsuen izenak idazteko eskatzen diegu: idazleak, musikariak... eta ondoren arbelean idazten ditugu. Emaitzak negargarriak izaten dira. Euskal kulturaren ezagutza oso pobrea da, eta euren kultura, oro har, ere bai. Komunikabideetako programa arruntetan azaltzen diren pertsonaiak agertzen dira zerrenda horietan. Eta horixe baliatzen dugu elkarrekin gogoeta egiteko.

Epe laburrean, irakasleak izango dira eta transmisio hori nola gauzatuko duten galdetzen diegu. Jarraian, berriak eskola bizitza aztertzen saiatzen gara. Gehienak, gure testuinguruan, D ereduan ikasi dute, ikastoletan... Beraz, printzipioz, bermatuta eduki behar lukete euskal kulturaren ezagutza. Eta



zergatik ez da hala gertatzen? Hainbat arazoi ematen dituzte. Batetik, komunikabideen eragina aipatzen dute. Beste batzuk, ordea, honakoa diote: “Bai, bai, gauza horiek ikasten genituen baina, soilik, azterketetarako eta gero ahaztu egin ditugu”. Niretzat hori da gakoa; eta bat dator komentatu dugun guztiarekin. Ikasleak kultura honen parte sentitzea lortu behar dugu; izen horiek ahaztezinak bilakatzea. Euskal kulturarekin edo historiarekin lotutakoak. Arazoa ez da ez dituztela landu –beno hori ere gerta daiteke– baina berriak aitortzen dute zenbait gauza ikasi dituztela. Hori da terriblea, ez dituzte bere egin! Ez zaie atsegina egiten, ez dute baliagarria ikusten, ez dute gustuko... Azterketan, soilik, pentsatzen dute.

Dena den, azpimarratu behar da egon daitezkeela zenbaitzuk horretarako aukera izan ez dutenak. Hau da, unibertsitateak ez dituelako lantzen, behar beste, landu beharko lituzkeen arloak; historia, artea... Hutsune handia daukagu gure ezagutzan, eta uste dut hori ere azpimarratu behar dugula. Baita Curriculum propioa eratzeko ditugun zailtasunak. Hainbat gauza herri ikuspegia sakontzeko lanketa egin behar da, eskolak horiek guztiak lantzeko baliabideak izan ditzan. Uste dut, azpimarratu behar dugula metodologian hausnarketa sakona egin behar dugula. D ereduan lortzen diren emaitzak metodologiaren ikuspuntutik aztertu beharko genituzke. Zergatik ez dituzte kompetentzia handiagoak lortzen? Hori da gakoa.

## Proiektuak ala mozorroak?



**Elixabete ANSA**  
NAFARROAKO IRAKASLEA

**Ikasturte berezia izango da aur-  
tengoa niretzat, lehenengo aldiz Haur  
Hezkuntzako “funtzionarioa” izango  
naizelako. Orain arte, ordezkoi ibili  
naizenean ikasi eta landutakoak zer  
pentsatua eman dit, eta nire buruta-  
zioak zuekin elkarbanatzea otu zait.  
Ez bainaiz egoera berri honetara ohi-  
zen.**

**Proiektuka lan egitea ez da kontu  
berria. Nik 30 urte pasatxo ditut, eta  
ikastolan izan nuen modu horretan  
ikasteko aukera. Bizi izandako guz-  
tiak, noski, nire lana hobeto egiteko  
indarra eta gogoia eman dit.**

Zorionez, gaur egun, proiektuka  
eta txokoka lan egitea oso zabaldua  
dago. Hala ere, sarritan, lan egiteko mo-  
du horien gaineko ikuspegi oso beste-  
lakoekin egiten dugu topo. Egunero-

koan murgilduta, ikastetxe gehienetan  
ez dugu pedagogiaz edota gure irakas-  
le jardunak sorrarazten dizkigun kez-  
kez hitz egiteko tarterik izaten. Horre-  
kin batera, prestakuntzarako edo eral-  
daketetarako izaten den gogo falta  
kontuan hartzen baditugu, bakoitzak  
nahi duena egiten du proiektu hitzaren  
azpian.

Nik, sarritan, haurrak engainatzen  
ari nintzela pentsatu izan dut. Uste dut  
ez dela guztiz egokia nire gelara erama-  
tea maila bereko beste irakasleekin  
prestatutako proiektuak, lanak, fitxak,  
jarduerak...

Izan ere, haurren berezitasunez,  
hartu beharreko denboraz eta bakoit-  
zaren garapen uneak errespetatzeaz  
hitz egiten dugu etengabe, eta gero,  
guztiz kontrakoa egiten dugu. Progra-  
mazioak nola prestatzen ditugun ikusi  
besterik ez dago: “Saio bat fitxa hau  
egiteko, beste bat matematikako libu-

rukoa egiteko, bestea...”. Joxe Ripiau  
taldeak aspaldi abesten zuen kantu ba-  
tek ere hala zioen: Beti presaka, beti  
presaka, inora ez iristeko.

Baina tira, ez gaitezen zuloan erori!  
Ez dakit, agian oraindik ez dut sinetsi  
ere egiten oposaketak gainditu dituda-  
la, baina ikasturte honetan egokitu zai-  
dan taldearekin izandako esperien-  
tziak proiektuen inguruan sortu zaizki-  
dan zalantzak modu praktikoago bate-  
an hausnartzeko balio izan dit, eta inori  
lagungarri bazaio, on egin!

### **GITARRAren proiektua**

Apur bat kokatze aldera, azalduko  
dudan lana Orkoiengo (Nafarroa) San  
Migel ikastetxe publikoko Haur Hez-  
kuntzako 3. mailako talde batekin egin  
dut. Taldea 21 haurrek osatzen dute: 12  
mutilek eta 9 neskek, hain zuzen.

Ikasturtea hasi zenean, Jacson Po-  
llock izeneko artista bati buruzko uni-





tate didaktiko bat egin genuen. Guk unitate didaktiko horri proiektua deitzen genion arren, haurrek gertuago zizuzten gauzen inguruko proiektu berri bat abiatu behar genuela iruditzen zitzaidan niri.

Bi aldiz pentsatu gabe, haurrei ondoko proposamena egin nien: “Ekarri etxetik gustuko duzuen gauzaren bat”. Hala, astebeteko epean ikasle guztiek etxetik zerbait ekarri zuten, eta etxe txokoa zena haurrek ekarritakoekin jolas egiteko txokoa bilakatu genuen.

Etxetik ekarritako gauza guztiak bildu ostean, gehien gustatzen zitzaie-na aukeratu eta hari buruz zerbait ikas genezakeela esan nien. Bozketa egiteko gomets bana eman nien haurrei, eta bakoitzak bere aukeraketa egin zuen. Ezer ulertzea zaila bazen ere, emaitzak ohar batean idazten saiatu ziren:

- 9 lagunek gitarra aukeratu zuten.
- 8 lagunek motorrak.
- 2 lagunek loreak.
- Hanburgesak eta printzesak boto bana izan zuten.

“Gitarra? Eta orain, zer egin behar ote dut?”, pentsatu nuen emaitzak ikusi bezain pronto. Lehenengo gauza, nola idazten den ikustea izan zen: ‘gitarra’ ala ‘kitarra’? Bai, hiztegian hala dago: gitarra. Haurrek ez zekiten oso ongi zer ikasi nahi zuten, baina “Rock! Rock!” errepikatzen zuten. Beno, hori bakarrik ez: oholtza batera igotzea ere proposatu zuten, gitarra jotzaileak gonbidatzea eta kontzertu bat ikustea. Ez da gutxi!

Ordura arte, proiektuekin aritzen nintzenez, galdera orokor batzuk egin nituen haurrekin proiektua abiatu aurretik. Hainbat saiotan ondorengo galderei erantzuten saiatzen ginien:

- ZER DAKIGU ... (R)IBURUZ?
- ZER JAKIN NAHI DUGU ... (R)I



BURUZ?

- NOLA IKASIKO DUGU?

Niri, baina, nahiko artifiziala egiten zitzaidan. Iruditzen zait, askotan, haurrak gehiegi bideratzen ditugula. Bartzuetan, gure hitzak haien ahotan entzun nahi izaten ditugu, eta horrek eskola zaharreko dinosauroen garaietara eramaten nau, aaaaa!!!

Nire ezjakintasunetik abiatuta, dokumentazio lana egin ondoren, liburutegi txokoan jartzeko liburu bat egitea bururatu zitzaidan. Haurrek esandakotatik eta gitarrei buruz zer landu daitekeen ikusita, liburuxka horretan ondorengo atalak jarri nituen:

1. Hitzaren definizioa eta etimologia.
2. Gitarraren historia.
3. Gitarra motak.
4. Gitarraren atalak.
5. Musika estiloak: rocka eta rock & rolla.

Ikastolan nola lan egiten genuen oroituta, haur bakoitzari atal horietako zein aukeratuko lukeen galdetzea eta, proiektuak iraun bitartean, taldetan banatzea pentsatu nuen. Horrela, gainerako ikaskideak txokoetan zeuden bitartean, talde bakoitzak aukeraturiko azpigaiaren inguruko informazioa bildu, jaso eta gainerako lagunei azaltzeko lana izango zutela azaldu nien.

Proiektuak iraun bitartean, haurrek



material ugari ekarri zuten etxetik: liburuak, jostailuzko gitarrak, bi gitarra elektriko, pua edo ziri bat... Eta gelako espazioa moldatzeko aukera probestu nuen. Etxe txokoa kenduta genuenez, gitarraren txokoa sortu genuen. Aulkiak, mikrofonoak, partiturak, musika ikurren jolasa... Eta onena: haurrak abestien doinuak eta hitzak asmatzen hasi ziren!

Talde txikian ginela liburuxka erabili nuen gida moduan. Baina, dena den, gelan ordenagailua eta, batik bat, gitarraren txokoa genuen materiala erabili ditugu. Era berean, ikasitakoa nolabait idatziz jasotze aldera, aparte-ko fitxa batzuk ere sortu nituen. Talde bakoitzak, fitxa horietan, egokitu zitzaizkien atalaren inguruko hitz gako batzuk idatziz behar izan zituen.

### **Ikasteko bizi egin behar dute**

Neurri batean zehatzegia edo zorrotzegia izan nintzela aitortu behar dut. Agian, haurrei ez zitzaizkien gehiegi interesatzen gitarraren historia edo fidicula bezalako hitz potoloak. Behar bada, ez zen beharrezkoa hainbeste xehetasun jakitea. Azken batean, egindako lan haiek nire liburuxkako hitzen kopiak ziren, ez haurrek esandako hitzen bilduma.

Horrela, konturatu nintzen nik egindako lana ez zela nahikoa, haurrek zerbait ikasiko bazuten, euren larruan bizi behar zutela. Eta hara non, gelako ikasle baten lehengusuak kontzertu bat antolatzeko aukera eskaintzen digun! Haurren artean sortutako arrakasta medio, bigarren aldiz etorri behar izan zuen gitarra elektrikoarekin eta anplifikadorearekin.

Gure musikariari elkarrizketa bat egiteko galderak prestatu zituzten haurrek eta, txandaka, beraiei otu zitzaizkien galderak egin zitzaizkien: "Nola jotzen da rocka? Nola heltzen da mikrofonoa? Nola jotzen da agertokian? Pianoarekin jo daiteke?". Hasieran erdi lotsaturik, baina, azkenean, Iargia abestiarren arrakastaz, doinu eta hitz bakoitza

bestearen atzetik dotore josi zituen. Beste ikasle baten izebak ere ikasitako hainbat kantu jo zitzaizkion. Une politak eta zirraragarriak izan ziren biak ere.

Arteaz asko jakin ez arren, denetik egin behar izaten dugunez, eskolako Haur Hezkuntzako laguntza irakaslearekin batera hainbat proposamen artistiko egin genituen. Etxean gitarra bana izatea ezinezkoa zenez, zapata kutxekin eta gomekin jostailuzko gitarrak egin zituzten haurrek. Gitarren xehetasunak eta atalak lantze aldera, buzinetik gitarrak atera eta margotu zituzten. Azkenik, Pop Art teknika baliatuz (Andy Warhol) gitarrak nahierara margotu zituzten.

Amaieran, ebaluazio jardueran moduan, taldeka zer ikasi zuten edo zer gogoratzen zuten azaldu behar izan zioten elkarri. Azalpenak egin ahala, talde bakoitzak egindako lana liburute-giko horma irudian ipini genuen. Ordura arte egin gabe neukana frogatu nahi izan nuen, eta esan behar dut ez nengoela batere ziur. Ez dakit lehenengo aldia izan zelako edo zergatik, baina saiook zuzenduegiak izan zirela eta tokiz kanpo geratu zirela esango nuke. Gehiegi estutu ote ditut?

### **Buru bat eta bi esku**

Ohartu naizenerako berandu da. Azken finean, lasai aski, nik proiektu deitu diodana unitate didaktikoa ere izan daiteke. Zergatik ez? Nire zulo berean erori ote naiz? Zergatik ez da unitatea izango, proiektuetan bete beharrezko galderak eta pausoak bete ditugulako? Haurren nahiak asebetetzeko nahikoa al zen? Zer dago sobera?

Gauzak aldatzeko gogoia bai, baina sarritan gogoia baino zerbait gehiago behar da lanean asmatu ahal izateko. Haurrei egiten uzteko eta esaten dutena entzuteko, ez da aski buru batekin eta bi eskurekin. Nik behintzat hala bizi dut, eta ez nuke esango sentimendu hori duen bakarra naizenik. Okernabil? Oraingoz zuei hauek esanda, behintzat, lasaiago nago.

**Iruditzen zait, askotan, haurrak gehiegi bideratzen ditugula. Batzuetan, gure hitzak haien ahotan entzun nahi izaten ditugu, eta horrek eskola zaharreko dinosauroen garaietara eramaten nau, aaaaa!!!**




## Albaola elkartearen eta larruzko belaontziaren proiektua Pasaia-Lezo Lizeoa

Euskal itsas ondarea babesteko eta berreskuratzeko asmoz sortu zen Albaola elkartearen proiektuaren bidez, ezinbestekoa du gazteen parte hartzea, eta hori dela eta bultzatu zuen larruzko belaontziaren eraikitzearen proiektua. Pasaia badiako gazteek eraiki zuten ontzia, Albaolako ontziolako teknikarien zuzendaritzapean. Trintxerpeko Gaztelekuaren gazteek hasi ziren ontzia eraikitzen, eta, ondoren, Pasaia-Lezo Lizeoko HEZE taldeak eman zion jarraipena.

Pasaia-Lezo Lizeoko taldeak Historiaurreko bezalako larruzko belaontzi bat egiteaz gain, bazituen beste hainbat helburu proiektuan murgildu zenean: arraunean ikasi eta itsasoaz gozatzeko, batetik, eta euskal itsas ondarea gehiago ezagutzeko, bestetik. Larruzko belaontzia eraikitzearen proiektuaren joan ziren ikasleak Donibaneko ontziolaria. Eta gainerako egunetan, eskolan bertan euskal itsas ondareari buruzko hainbat lan teoriko egiten ari ziren. Besteak beste, larruzko kanoen Euskal Herrian izan duten presentzia aztertzen zuten, Andres Urdaneta itsas gizonaren irudia landu zuten, Pasaia badiako zaintzeko dekalogoia osatu zuten, eta *Txanpa* aldizkarirako proiektuaren txostena ere idatzi zuten.

Baina zergatik hartu lan hori guztia? Bada, proiektua polita izateaz gain, as-



Larruzko belaontziaren oinarria.

ko ikasteko baliagarria ere izango zitzaiela uste zutelako: lantegi batean lan egitea zer den ikusteko, lanerako tresnak ongi erabiltzeko (behar bezala zainduz, bere lekuan utziz), talde lanean ongi aritzeko, ardurak hartu eta garaiz betetzeko, arraunean ikasteko, lanean gozatzeko, Pasaia badiako beste ikuspuntu batetik ezagutzeko... Oro har, kanoaren proiektuarekin bi irakaspen nagusi jaso zituzten ikasleek: “lana hobeto egiten ikasi zuten eta alboan dugun itsaso hori hobeto ezagutu zuten”.

Ikasleek zazpi metroko luzera eta lau tosta dituen larruzko belaontzia eraiki zuten, zura, larrua eta soka baliatuz. Iturri arkeologikoei erreparatuta egindako diseinuaren arabera, lehenik eta behin, berotasuna aplikatuz zura itxuraldatu eta okertu egin behar izan zuten, itxura kakotua emanez. Ondoren, gila, karela eta saihets nagusiak lotu zituzten. Gero, larrua josi eta egiturara lotu zuten. Eta, uretaratu aurretik, larrua ongi tenkatuta zegoen ziurtatu

zuten eta koipea eman zioten ontziari. Lan guztiak txukun-txukun bete ostean, iazko ekainaren 20an ontzia Pasaia badiako uretaratu zuten.

### Hiru protagonista

Ekimenak, parte hartzaile ugari izanagatik ere, hiru protagonista nagusi ditu. Ane Miralles, Pasaia-Lezo Lizeoko irakaslea eta Albaola elkartearen kidea, Markos Sistiaga, Albaolako kidea eta abenturazalea, eta Mike Newmeyer, zailtasunak eta behar bereziak dituzten nerabeekin lan egiten duen ontzigilea, hain zuzen.

### Markos Sistiaga

“Xabier Agote pasaitarrak duela hamaika urte sortu zuen Albaola elkartearen proiektua. Itsasoaren inguruko hainbat kezka zizuten, eta AEBko Maine estatuan ontzigintza ikasketak egin zituen. AEBetan, itsasontzi edo batel klasikoaren eskolan, Euskal Herrian baino tradizio eta indar handiagoa dute. Euskal Herriaren itzuli zenean, euskal itsas ondarearen gaine-



Elkartearekin bat egin eta hainbat proiektutan parte hartu genuen gerora Anek eta nik Albaolako kideekin: *Urdina Itsasoari*, *Galiziatik Pasaia*ra arraunean eta *Gure Ibaiak* proiektuetan, esaterako. Giro horretan, ontzi zaharrak berritzen eta berriak egiten ere aritu gara. Hurrengo erronka, Pasaian bertan Hondartxo Itsas Ondarea babesteko eta lantzeko zentroa abian jartzea da. Hezkuntza proiektu sendo batekin gai horren inguruko transmisioa egiteko”.

### Ane Miralles



koelkarte bat sortzea bururatu zitzaion.

Hasteko, traineru bat eraikitzea otu zitzaion. Hemen ez zuen laguntzarik izan, eta AEBetan, euskal etxeen laguntzarekin, euskal diasporaren oparigisa, eraiki zuten trainerua, hango ikasleekin. Gero, Euskal Herrira ekarri zuen trainerua, eta horrela jarri zen abian Albaola elkarte Pasaian bertan.

Pixkanaka, Oarsoaldea agentziaren bidez, besteak beste, aurrera egitea lortu zuen. Horrela, elkarte ezagutzera eman eta proiektua indartzeko asmoz, Bilbotik Pasaiaarako bidea egin zuten herriz herri traineruarekin. Une horretan bertan, Ane eta biok *Hiru pauso biru norabide* espediziorako entrenamendua egiten ari ginen, eta hara non ikusi genituen Xabier eta kideak traineruarekin olatuetan gora eta behera.

“Ontzigtzari buruz ikasitakoa Pasaia Lezoko Lizeoan jarri dut abian. Izan ere, hango irakaslea naiz DBHko lehendabiziko bi mailetan. Hainbat zail-

tasun dituzten ikasleekin tutore lana egiten dut ordu batzuetan. Ikasle horiek motibatzea oso zaila izaten da, eta aurreko batean sukaldaritza landu zuten ildo beretik, hiruhileko batean ontziolan zerbait egitea proposatu nien. Lantegira joan ginen, ikasleei beraiei zein lan egin zezaketen galdetu genien, eta denen artean gauzatu zuten larruzko kanoaren proiektua”.

Gelako lana ontziolako proiektuarekin uztartuz, larruzko ontzi tradizional bat egin zuten ikasleekin. “Proiektuaren helburu eta erronka nagusia ikasleak lanerako motibatzea eta uste dutena baino gehiago egiteko gai direla erakustea izan zen. Eta, era berean, talde bateko partaide izateak dituen onurak baliatzeari garrantzi handia eman zitzaion. Euren buruan sinetsiz gero, gauzak, hasi eta bukatu, arrakastaz egin daitezkeela ikusarazi nahi nien ikasleei. Izan ere, zenbaitetan ikasleek sinetsi egiten dute ez dutela ezertarako balio, eta dituzten gaitasun guztiak lantzen lagundu behar lieke eskolak”.

Ontziaren itsasoratze ekitaldia arrakastatsua izan zen herrian, eta ikasle-irakasle taldearen lan eskerga aitortzeko modu ezin hobe bilakatu zen.

### Mike Newmeyer



Bretainian bizi den estatubatuar honek ere itsasontziak egiten ditu. Albaola elkartekoekin hainbat irteera eta elkarlan egindakoa da, eta euskal itsas ondarearen gaineko interes handia du.



Xabier Agote Albaola elkartearen sortzailearen ikaskidea izan zen Mainen (AEB), eta gerora harremanari eutsi diote. Newmeyerrek hainbat hezkuntza proiektu gidatu ditu AEBko ontziola zaharrenean.

Askotariko zailtasunak eta beharrak dituzten nerabeekin egiten du lan, bereziki. Bizitzan euren tokia aurkitzen eta lanbide bat ikasten laguntzen die. Itsasoari eta ontzigintzari esker norabide bat bilatzen laguntzen die. Nantesko (Frantzia) 16 neraberekin egin zituen lehenengo integrazio lanak, 1996an. Gazte horiekin lau ontzi eraikitzeko proposamena jaso zuen, eta oso proiektu arrakastatsua izan zen. Ederki pasatzeaz gain itsasontziak egiten irakatsi zien. Proiektuaren helburu nagusia nola lan egin behar zuten erakustea izan zen, hau da, gazte horiek bizitzarako prestatzea.

*Experiential Education, learning by doing* izena zuen proiektuak; hau da, *Espereintzia bidezko hezkuntza, eginez ikasten*. Newmeyerrek ziurtatzen duenez, lan eginez ikasi egiten da, eta ardurak hartuz pertsona indartzea lortzen da. "Pertsona bakoitzak dauka bere buruaren ardura, eta hortaz oharitzen direnean, ikasleek, gehienetan, zailtasunetatik irteerako adorea biltzen dute".

Proiektu horren arrakasta eta onurak ikusita, proiektu berri batean murgildu zen: Atlantic Challenge. Hasierako ekimen hartan bezala, zailtasunak dituzten nerabeei itsasontziak egiten erakutsiz egiten dute lan berak eta Pierre Pinon bere lagunak. Mission Local elkarteak sortu eta urtean 45 ikasle inguru izaten dituzte. Hamasei eta hogeita bost urte bitarteko gazteekin ari dira lanean; guztiak hezkuntza sistematik kanpo egoten dira. Ikasle horiei prestakuntza eta lanbide orientazioa eskaintzeaz gain, gizarteratzeko hainbat irteera proposatzen zaizkie.

Lehenengo urtean ikasle gehienek lana lortu zuten, eta beste batzuek trebakuntza ikastaroetan eman zuten izena. Egun ere, ia ikasle guztiak bidertatzea lortzen dute. Ikasle horien jarraipe-



na egitea lan erraza ez den arren, askok lan egokia topatu eta familia batosatzea lortzen dute. Horixe da sari ederrena Newmeyerrentzat.

Orain, Albaolako Xabier Agoterekin batera bere eskola propioa sortu nahian dabil. Europa osorako proiektua izango da, eta kokalekua Pasaiako Hondartxon izango du. Nazioartean itsasontziak egiten jarraitu nahi dute, nabigazio tradizionala irakatsi eta nerabeekin gizarteratze programak egiten segi; baita behar bereziak (gurgildun aulkian daudenak, esaterako) dituzten ikasleekin ere.



## Zein eragin dute telesailek neska nerabeen sozializazioan? Zeintzuk dira Hezkuntzaren erronkak?



### 2009ko Ikerketa lan baten ondorioak.

Jakina da telebistak pertsonengan duen sedukzio-boterea, ikuslea harra-patu eta irensteko duen gaitasuna. Gaur egun gazteen artean bestelako pantaila batzuen presentzia indartzen ari bada ere, telebista da, oraindik, protagonista nagusia. Duela urte pare batetako ikerketa batek<sup>1</sup> argitu zuen euskal nerabeentzat fikziozko serieak direla telebista programazioko produkturik gogokoena eta bereziki nesKentzat, horietako %79ak ikusten baititu<sup>1</sup>.

Ikus-entzunezko fikziozko produktu horiek ikusleen arrazoimenari hitz egin beharrean, haien mapa afektiboan gainean lan egiten dute eta egitura irudikariak, sentimentalak, emoziozkoak... transmititu edo/eta sortzen dituzte. Hori dela eta, zein ondorio izan ditzakete fikziozko telesail horiek neska gazteen bizitzan, eraikitzen dituzten



**Make IRIGOIEN PERUARENA**

IRAKASLEA

harremanetan, beraien desioetan, itxaropenetan, eremu publiko zein pribatuan egoteko moduan...? Ze balio eta mezu hedatzen ote dituzte? Fikzioa fikzio soila ote da? Edo telesailak bizitza

errealera moldatzeraino iristen dira? Erakusten al dituzte gizartean ematen ari diren bizimodu-aldaketak eta harremanak eratzeko estilo berriak? Eta azkenik, hezkuntzak zer egin ahal izango luke telesail horiekin ikasleen hezikomunikazio prozesuan?

Iaz galdera horien erantzunen bila aritu nintzen EHUko *Ikasketa Feminista eta Generokoak Masterraren* marcoan eginiko ikerketa-lanarekin. Nola? Bilboko DBH4. mailako zenbait neska-ikasleri hitza emanez.

### Zer diote neskek?

Denek telebista zein telesail-ikusle gisa esperientzia handia zutela erakutsi zuten eta agertu zituzten iritzi asko bat etorri ziren. *Física o Química* eta *El In-tornado* izan ziren gehien aipatu zituzten telesailak. Hona hemen neskek

<sup>1</sup> BASTERRETXE, Jose Inazio [et al.]. *Alfabetizazio berriak: Euskal Herriko neska-mutilak eta komunikabideak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpenak, 2007. (Soziologiazko Euskal Koadernoak-22).

<sup>2</sup> *Mutilen artean, aldiz, %55ak*.

<sup>3</sup> BASTERRETXE, Jose Inazio [et al.]. *Alfabetizazio berriak: Euskal Herriko neska-mutilak eta komunikabideak*. "Komunikabideen kulturaren alfabetatua –bots, mediatikoki alfabetatua– egon nabi duen orok landu beharko lukeen trebezia da".

esandakoaren laburpena:

• **Zer dira telesailak?** Beraientzat fikziozko-telesailak entretenimendu eta dibertsio iturri dira.

• **Zergatik lortzen dute haien interesa eta fidelitasuna?** Beraiek bizitzen dituzten egoeren antzekoak erakusten dituztelako, adin berekoekin konpartitzen dituzten bizi-espazioan, hau da, ikastetxean. Dena den, elkarrizketatu batzuk onartzen dute telesailak, sarritan, ez dutela beraien errealitatearen aniztasuna.

• Ez dute somatzen fikziozko-telesailak bere identitate-garapenean eragiteko inolako boterea dutenik. Aldi berean, ordea, bizitza errealean nola jokatu erakusten dutela diote.

• **Nolakoak dira telesailtako neraberik arrakastatsuenak?** Emakumeen ezaugarriak: batez ere gainerakoei laguntzen inplikatzeko dira, maitekorrek, ideia garbiak dituztenak eta azkarrak dira. Ez dira batere menekoak eta mutiak bereganatzeko duten erakargarritasuna sotilki erabiltzen dakite. Elkarrizketatuen arabera, adin batetik aurrera "liberalegia" izatea ez da komeni eta familia izaten pentsatzen hasi beharko lukete. Mutilen ezaugarriak biltzean bi talde agertu dira: alde batetik, gizon gogor itxura dutenak, afekturik erakutsi ez eta inguruan kalte ugari sortzen dutenak. Hala ere, barru-barruan onak dira eta elkarrizketatuen ustez estimagarriak dira. Bestetik, mutil maitekorrek, adeitsuak, jatorrak, maitaberak eta emakumeekin babesle agertzen direnak daude. Batzuk eta besteak, beldurrik aitortzen ez duten gizon-ereduak dira. Elkarrizketatu guztien ustez estetika, fisikoa eta janzkera oso erabakigarria da pertsonaiek arrakasta izateko edo ez izateko. Neska ilehoriak eta argalak dira gehien baloratuak. Nesken artean inbidia eta etsaitasuna ere aipatzen dituzte.

• **Ligatzea omen da neska nerabe hauen gustukoak diren telesailen ardatz nagusia:** horretarako neskek gorputzaren "edertasun-eredua" betetzea ezinbestekoa da. Harreman heterosexuak dira ia eredu bakarra. Mutilek

hasiera batetik emakumeak objektu sexual bezala ikusten dituzte. Salbuespena: mutilen arteko harreman homosexual bat da eta elkarrizketatuek honako hitzak lotzen dizkiote: adierazteko ezintasuna, diskriminazioa, tratu txarrak...

• **Eta arazoan aurrean ze jarrera dute telesailtako protagonista nerabeek?** Emakumeak ia beti konpontzen saiatzen dira eta, ezin badute, laguntza eskatu ohi dute. Prozesu horri lotutako hitzak: beldurra, zalantza, berehalakotasuna eta zenbaitetan etsipena. Mutilei dagokienez, batzuetan zalantza dituzte: aurre egin edo ez, beharrezkoa bada laguntza eskatu... Beste batzuetan paso eta ihes egiten dute drogak, alkohola... erabiliz. Prozesu horri lotutako hitzak: haserrea, urduritasuna, amorrua eta gatazka berrien sorrera.

• **Fikzioa eta bizitza erreala lotuta al daude?** Telesaila ikusi eta biharamunean komentatzeko uneak lotura zuzena duela diote elkarrizketatutako neska ikasle guztiek. Kapituluaren gertatutakoaren inguruko komentarioak, kritikak, proiektzioak... egitea izango baita laguneren arteko harreman-bidea. Horregatik ematen diote kapitulu bakoitza emisio-unean bertan ikusteari erabateko lehentasuna.

• **Fikzio-telesailak balio pedagogikorik ba al dute?** Elkarrizketatu guztien esanetan irakasleek sekulan ez dituzte irakasgai-material bezala erabili. Denek diote oso interesgarri eta baliagarri izango litzatekeela. Zergatik? Atsegina, entretenigarria, motibagarria, bestelako ikuspegiak ikusteko erabilgarria, ikasteko modu errazagoa... izango litzatekeelako. Are gehiago, ikasle batek esan zuen komenigarria izango litzatekeela irakasleok telesaila horiek ikustea bertan gauza asko ikasi-ko genituzkeelako.

### Nesken iritzietatik zeharka eratorritako ondorioak:

Zenbait gizarte aldaketa islatzen saiatzen diren arren, estetikoki modernoak diren telesailak eta horietako protagonistek argi eta garbi jarraitzen dute

**Zenbait gizarte aldaketa islatzen saiatzen diren arren, estetikoki modernoak diren telesailak eta horietako protagonistek argi eta garbi jarraitzen dute emakumeentzako zein gizonentzako genero-estereotipo ezberdinak produzitzen eta transmititzen.**



emakumeentzako zein gizonentzako genero-estereotipo desberdinak erreproduzitzen eta transmititzen: janzkeran, itxura fisikoan, izaeran, bizitza ikusteko moduan, pertsona-barruko eta pertsonen arteko harremanak eratzeko estiloetan, gatazkek kudeatzeko moduan, harreman afektibo-sexualak eraikitzean... Horren ondorioz, adibidez, elkarrizketatutako neska-ikasleek 'naturalizatu' eta justifikatu egiten dituzte gizon-protagonistaren batek burutzen dituen erasoak eta erabiltzen duen indarkeria. Elkarrizketatutako batek, etorkina bera, telesailtako etno-dibertsitatearen isla falta zela aipatzen bazuen ere, nesken arteko bakar batek ere ez zuen sexismo-aztarnarik identifikatzen, ezta heterozentrisismoarenik ere. Eta ikusten ez dena, ezin da identifikatu, ezin da kritikatu, ezta deseraiki ere.

Bestalde, telesailak gozamen-iturri sendotzat hartzen dituzten heinean, neska-nerabeen arteko sozializazio-mekanismo bihurtu da haiei buruz hitz egitea, iritziak konpartitzea eta azken berrien jakinaren gainean egotea, hots, telesailak lagunekin komunikazio-ibilgailu bilakatu direla ondorioztatu daiteke. Elkarrizketatutako neska guztiek ongi baloratuko lukete irakasleok halako materialak erabiliko bagenu irakasgaietako edukiak lantzeko.

## Telesailak ikasleentzako sozializazio eragile anonimoak izatera iritsi direnez, hezkuntzak badu zereginik: telesailek erreproduzitzen duten sexismoa eta bestelako

**diskriminazio guztiak ikasleei bistarazten laguntzea eta baita ondorio kaltegarrien gainean hausnarketa egitea ere.**

### Egoera horren aurrean hezkuntzak ba al du zeresanik?

Hezkuntza-sistemaren betebeharrak da ikasle bakoitzari bere bizitzan (maila pertsonalean, profesionalean eta hiritar mailan) era autonomoz, erantzukizunez eta elkarrekiko arduraz aritzeko beharrezkoak izango dituen oinarrizko kompetentzietan preskakuntza bermatzea. Hori guztia lortzeko, hezkidetzaren ekarpenak ezinbestekoak dira. Gure kasuan telesailak ikasleentzat sozializazio-eragile anonimoak izatera iritsi direnez, hezkuntzak badu zereginik: telesailek erreproduzitzen duten sexismoa eta bestelako diskriminazio guztiak ikasleei bistarazten laguntzea, baita ondorio kaltegarrien gainean hausnarketa egitea ere.

### Telesailak hezitzaileontzat material iturri izan daitezke?

Ikus-entzunezko materialak, orokorrean, eta, bereziki, fikziozko telesailak ikasleengan duten erakargarritasunagatik baliabideak biltzeko eta material berriak sortzeko altxor-kutxa proposa dira. Xedeak? Bi nagusiki:

a) Indarkerian eta dominazio-mekotasunean oinarrituriko harremanak sustatzen dituzten telesailak pertsonaien inguruko hausnarketa kri-

tikoa bultzatzea. Horrelakoak dira gehienbat ikasleek ikusten dituzten telesailak protagonista: teledibulgoak eta *prime time* orduetegiaren emittitzen direnak. Nola egin? Teledibulgoak jasotzen dituzten mezu patriarkalen ideologia sexista, xenofobia, lesbofobia, homofobia, transfobia, antiekologista, belizista... bistaratu eta kudeatu, horien analisi kritikoa sustatu eta deseraikitze lanetan trebatu.

b) Harreman osasungarriak eta elkarbizitza positiboak eraikitzeke ereduak erakusten dituzten telesailak pertsonaiak bistaratu eta indartzea. Horrelako adibideak egon badaude, baina sarritan ikasleek ikusten ez dituzten telesailak aurki ditzakegu. Zergatik? Marketing handirik izan ez dutelako, bestelako orduetegiaren emittitu dituztelako edo soilik kate pribatuetan ikus daitezkeelako. Are gehiago, batzuk, oraindik, bertako teledibulgoak iritsi ez direlako. Izan ere, planeta osoan gero eta jende gehiago ari da patriarkatu hegemonikoaren mugak gainditzeko ahalegin sendoak egiten; emakume eta gizon aunitz ari dira beren inguru hurbilean bizi-errealitate berri eta sortzaileagoak zabaltzen, eguneroko gertaerei, arazoei, beharrei...

irtenbide bidezkoagoak topatzen, maitatzeko zein harremanetan egoteko bide zoriontsuagoak eta berdinkideagoak eraikitzen. Errealitate horiek ikasgelaletara eramateak sekulako indar eraldatzailea izan dezake, ikasleei hainbat egoeren aurrean erantzun-eredu sorta positibo eta anitza eskainiko diegula, hierarkizazio gabea. Sinbolo diskriminazioak desegin eta diskriminazio mota orori ezetza emateko bide ederra da.

Horixe da hezikomunikazioaren arloan, ikasleak hiritar aske, arduratsu, solidario, kritikoa, autonomo eta independente moduan hezteko ekarpen hezkidetzailerat.

### Gehiago sakontzeko -Zubiak eraikitzen hezkidetzan-Taldearen BLOGA

<http://zubiakeraikitzen.blogspot.com/> -2007ko Ikerketa: Alfabetizazio berriak: Euskal Herriko neska-mutilak eta komunikabideak.

<http://tinyurl.com/alfabetizazio-berriak-2008koTxostena>: Genero indarkeria Bilboko nerabe eta gazteen bikote harremanetan.

<http://tinyurl.com/nerabe-bikoteak>





Bide eginean jarraitzen dugu zuen  
ekarpenekin eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa duen edonoren  
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal  
hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.

maiatza  
berriak

# EAEko Eskola Kontseiluak 20 urte

Aurten, EAE Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Kontseiluak 20 urte beteko dituela eta, ekitaldia egin zuten apirilean Euskalduna jauregian. Bidean «geldialdia» egin eta etorkizunera begira jartzeko ekitaldia izan zen Billbokoa, Eskola Kontseiluaran arabera. Ekitaldia Kontseiluko presidente eta kideen lana aitortzeko baliatu zuten. Han izan ziren, besteak beste, Isabel Zela Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua eta Konrado Mugertza Euskadiko Eskola Kontseiluko presidentea.

EAEko Eskola Kontseilua, 1989an osatu zen Eusko Legebiltzarrak onartutako lege baten babesarekin. Garai hartan Jose Ramon Recalde zen EAEko Hezkuntza Sailburua. Lehenengo urte haietan M<sup>a</sup> Anjeles Echavarria izan zen Eskola Kontseiluko lehendakari. Ondoren, orain gutxi zendu den Pello Ellakuriak hartu zuen kargua eta 2001. urtetik hona, Lontxo Oihartzabalek eta Konrado Mugertzak bete dute Eskola Kontseiluko presidente kargua.

## Konrado Mugertzak ez du presidente karguan jarraituko

Joan den hilean amaitu zuen lau urteko agintaldia, eta Eusko Jaurlaritzak ez du Eskola Kontseiluko presidente postuan mantenduko. Beraz, Konrado Mugertzak ez du jarraituko EAE Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Kontseiluko presidente izaten. Apirilaren erdialdean BERRIA egunkariak kalera-  
tu zuenez, agintaldia amaituta, Eusko Jaurlaritzak ez du Mugertza karguan berretsiko, eta Mugertzak berak ere ez luke jarraitu nahi izango, gobernuaren konfiantza izan ezean.

Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate

eta Ikerketa sailburuak izendatzen du Eskola Kontseiluko presidentea. Eta duela lau urte Tontxu Campos sailburu ohiak hautatu zuen Mugertza kargurako. PSE-EE Jaurlaritzara heltzean, Mugertza bertan mantentzea erabaki zuen Isabel Zela sailburu berriak.

Baina Eskola Kontseiluko kargu guztiak lau urtean behin berraztertzen dira, eta Mugertzak aurten beteko ditu lau urte horiek presidente postuan. BERRIAk Hezkuntza Saileko iturrien arabera plazaratu zuenez, Jaurlaritzak ez du mantenduko Mugertza presidente



Konrado Mugertza

postuan. Hezkuntza Sailak ez ei du oraindik ordezkorik aukeratu.

Mugertza Euskal Herritik at zegoen albistea plazaratu zenean, eta ez zuen gaiaz adierazpenik egin. Edonola ere, EAEko Eskola Kontseiluak adierazi du horrelako aldaketak «normalak» direla agintarien konfiantzazko postuetan, are gehiago gobernu aldaketan ostean.

Azkenaldian, agerikoak izan dira Eskola Kontseiluaren eta Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren arteko desadostasunak.

## Ikasle gehiagok gainditzen dituzte irakasgaiak D ereduan ikasita

2008-2009 ikasturteari erreparatuta, LH Lehen Hezkuntzan, eta sare publikoan, D ereduko ikasleen %96,21ek gainditzen dute. Tasa hori %94,28koa da B ereduan, eta %89,15koa A ereduan. Beraz, D ereduan ikasten duten ikasleek irakasgai gehiago gainditzen dituzte A eta B ereduetan ikasten duten ikasleek baino. Eta horiexek dira Eusko Jaurlaritzak plazaratutako datuak, Mikel Basaba Aralarreko legebiltzarkideak egindako galderari erantzunez.

Itunpeko ikastetxei dagokienez, D ereduan ikasten duten LHko ikasleen %98,13k gainditzen dute, %95,81ek B ereduan, eta %97,12k A ereduan. Alde hori areagotu egiten da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, eta are handiago da Batxilergoan. Hala, sare publikokoko D ereduko ikasleen %81,42k gainditzen dute Batxilergoan, eta A ereduko %66,78k. Itunpeko sarean, D ereduko %90,75ek gainditzen dute, eta A ereduko %85,44k.

Emaitza horiek, gainera, ez dira ikasturte batekoak soilik, azken bost ikasturteetako datuek erakusten dute joera hori.

# Xiberoako Ikastolen 40. urteurrena



Ikastoletako Ikasle Ohiak elkarteko kideak beraien logoaren aldamenean. *Kazeta.info*

Ikastoletako Ikasle Ohiak (IIO) elkartek euskaraz ikasi duten xiberotarrak elkartu nahi ditu. Izan ere, 40 urte dira Xiberoako Ikastolak sortu zirela.

Ospatzeko historiari eta euskararen egoerari begiratu bat emango dion ikuskizuna ari dira prestatzen elkarteko kideek. Eta ikasle ohi gehiagoren bila jarraitzen dute abenduaren 11an Mauleko Jai Alaiean egingo den antzerkia gauzatzeko.

Oraingoz, hamar gazte inguru el-

kartu dira, baina ikasle ohi gehiago bilduko direla espero dute. Aldi berean euskararen garapena bultzatzea eta egungo egoerari buruz hausnarketa egitea da gazte horien helburua. Egun, astean behin elkartzen dira proiektua prestatzen joateko.

## Ikuskizuna irekia

Askotariko adierazpen artistikoei zabalik egin nahi dute sortzaileek ikuskizuna. Horrela, dantzak, musikak,

abeslariak eta antzerkiak bat egingo dute bertan. Kulturaren alorrean ikastolek izan duten parte hartzea azpimarratzea eta ikastolek akuilatu duten sorkuntza azpimarratuko dituzte.

## Informazio gehiago sarean

Material oso ezberdinak erabiltzea pentsatu dute antolatzaileek, horrela, argazki zaharrekin batera ahozko eta idatzizko artxiiboak ere baliatuko dituzte. Halaber, material berria sortzeko asmoa ere badute, bideoen bitartez Xiberoako Ikastolak aurkeztuz eta lekukotasunak bilduz. Erramun Etxecopar, Argitxu Camus Etxecopar, Lüxi Aguergaray, Maite Davant, Maritxu Lacarrieu, Ihintz Iriat, Oihana Larrandaburu eta Joana Arhacet-Etchegoyhen dabilta proiektuaren inguruan. Xiberoako gazte euskaldunak elkartu nahi dituzten ikasle ohiak proiektua aurrera ateratzeko.

Ekimenari buruzko informazio gehiago eskuratu nahi duenak *Facebooken* XII Oreakin lagun egiteko aukera dauka. Bestalde, helbide elektroniko bat ere zabaldu dute *xiberokoikastolak@hotmail.com* izenarekin.

## Maiatzak 2: Euskaraz Bizi Eguna Etxarri Aranatzan

2004an Euskal Herrian Euskarazek lehenengo Hizkuntza Eskubideen Eguna ospatu zuen Lesakan, eta ibilbide luzea egin ondoren, orain, 2010ean, lehenengo Euskaraz Bizi Eguna antolatu du.

“Maiatzaren 2an Etxarri-Aranatzan herri euskaldunaren aldeko mezua zabalduko dugu, euskaraz bizi nahi dugu, eta hori irudikatuko dugu Sakanan. Egin nahi dugun bidean eragiteko denon ekarpena ezinbestekoa izango denez zu(ek) ere egun horretan parte hartzea nahi dugu”.

EHEk 10:00etatik hasi eta iluntzera arteko egitaraua antolatu du, *Euskaraz bizi* aldarrikatzen duten bitartean ondo pasatzeko. Eguneko ekintza guztietan parte hartzeko gonbita luzatu dute, baina bereziki goizeko 11:00etan Kultur Etxean egingo den *Euskaraz nola bizitailerrean* parte hartzeko gonbidapena. Ondoren, 13:00etan abiatuko da kalejira eta jarraian ekitaldia izango da.

“Euskaraz bizitzeko denon ekarpena ezinbestekoa delako”, maiatzaren 2an Etxarri-Aranatzera joateko deia luzatu dute!



# Euskara mihian, irria begian lelopean izango da Herri Urrats maiatzaren 9an, Senperen

Ohi den bezala, Senpereko (Lapurdi) aintziraren inguruan egingo da Herri Urrats datorren maiatzaren 9an. Aurtegoa, 27. festa izango da eta *Euskara mihian, irria begian* izango du leloa.

Apirilaren amaieran aurkeztu zuten jaia eta bertan izan zen Hur Gorostiaga Seaskako zuzendaria. Haren hitzetan, Zuberoa, Nafarroa Beherea eta Lapurdiko ikastolek sekula baino gehiago behar dute jaia jendetsua izatea. Hori dela eta, euskaltzale ororen sostengua “ezinbestekoa” izango dela nabarmendu zuen. Izan ere, azken ekitaldian Arabatik, Gipuzkoatik, Nafarroatik eta Bizkaiatik heltzen den jende kopurua apaldu egin dela diote. Ikastolen hel-

burua garatzeko eta erronka ekonomikoari aurre egiteko euskaltzaleen borondatea funtsezkoa izango dela nabarmendu zuen.

Bestalde, Herri Urrats elkartearen presidente Serge Zudairek gogorarazi zuen Senperen egiten den festa dela Ipar Euskal Herriko ikastolen garapeneraren zutabea: “Sarreran erosten den kilometroa urrats sendoa da ikastola eraikitzeko”.

Gainera, orain arte Eusko Jaurlaritzak eman dizkion diru laguntzak, oraingoz, kolokan ikusten ditu Herri Urrats elkarteak.

Goizeko hamarretan Kataluniako Aire Nou de Dao taldeak abiatuko du



eguna *castell* bat eginez. Ondoren, bost gunetan banatuta egun osoko egitarau zabalaz gozatu ahal izango da.

## Eskola Txikien festa, Altzon

*Eskola Txikiak bizirik, herri eta auzo txikiak bizirik* lelopean XXIII. Eskola Txikien festa egingo dute datorren ekainaren 13an Altzon (Gipuzkoa). Laurehun biztanle inguruko herria da Altzo eta bertako Santilazpi Guraso Elkartea ari da egun osoko jaia antolatzen Altzoko eskola komunitatea osatzen duten kide guztien laguntzarekin.

Lau gunetan banatuko dute herria: plazako eremua, Lizarbe eremua –lehenengo karpa–, eskola eremua –bigarren karpa– eta plazatik eskolara doan ibilbidea. Lau gunehorietan ikasleen arteko jolasak, bazkaria (frontoian), *Pirritx, Porrotx eta Marimotots* pailazoaren emanaldia, *Lain* taldearen kontzertua, bertsolariak eta erromeria izango dira. Gainera, egun osoan zehar haurrentzako puzgarriak egongo dira eta erraldoiek alaituko dituzte Altzoko txoko guztiak.



## Hiritargo digitala

Datorren maiatzaren 20tik 22ra bitartean Hiritargo Digitalaren I. Kongresua egingo dute Donostiako Kursaal Jauregian.

“Ziberbullyinga eta Interneten erronkak eskolan eta familian adin txikikoentzat” izango da lehenengo ekitaldiaren gai nagusia eta nazioarteko adituen hartuko dute parte bertan. Besteak beste, hezkuntza eredu berriaren diseinuaren, demokrazia parte-hartzailea kontzeptuaren definizio berriaren eta Informazio eta Komunikazio Teknologiek (IKT) dituzten arriskuen gaineko hausnarketa egingo dute.

“Etorkizuneko gizartea definitzeko gai estrategikoak”, argitzen saiatzea da antolatzaileen helburuetako bat. Informazio gehiago nahi izanez gero [www.congresociudadaniadigital.com](http://www.congresociudadaniadigital.com) webgunean dago eskuragarri.

# ECOMU-HEMUE Masterra: hezkuntza eleaniztun eta kulturartekotekoari erantzuteko



Hizkuntzen eta kulturen aniztasuna, inoiz baino indar eta behar handiagoz jorratu beharreko afera mamitsua da; gure gizartearen errealitate berriari erantzun egokia eman nahi badiogu, behintzat. Eskolari begira, zer eragin dute fenomeno horiek, eta zer behar berri sortzen dute gure ikastetxeetan?

Eta irakasleok, berriz, zer-nolako formazioa behar dugu esku-hartze egokia izateko?

Galdera horiei erantzuteko masterra prestatu dugu HUHEZIn, hizkuntzen eta kulturen munduak elkarri begira jarrita. Materiak, hurrenkera eta irakasleak honakoak dira:

Masterra ikas daiteke, besteak beste, ondoko erronkei ekiteko: ikastetxe-ko proiektu eleanitz eta kulturartekoa planifikatzeko eta inplementatzeko; eskolako eta aisialdiko hezkuntza-programak diseinatzeko; baliabide didaktikoak sortu eta egokitzeko; hezitzaile gogoetatsuak formatzeko... Masterrak badu ikerketa-ibilbidea ere, hau da, lehen “doktorego programa” izendatzen genuena.

Masterra diplomaturatik zuzenean egin daiteke eta %100 online da Mudle plataforma bidez. Ikasle bakoitzak erabaki dezake bere ibilbidea eta moduluz moduluko ikasketak egin, urte betean, bi urtetan edo hiru urtetan. Informazio gehiago HUHEZiko web orrian: <http://www.mondragon.edu/bubezi>. Izen-ematea maiatza-ekainean egingo da eta matrikula uztailean.

**Arantza Ozaeta**, HUHEZiko irakaslea, masterreko koordinatzailea da.

Moduluak	Materiak	Irakasleak
<b>1. Moduluak:</b> <i>Oinarriak</i>	<b>1.1.</b> Hezkuntza eleanitzaren oinarriak (5 ECTS)	<b>Pili Sagasta dok.</b>
	<b>1.2.</b> Kulturarteko hezkuntzaren oinarriak (5 ECTS)	<b>Monika Madinabeitia dok.</b>
<b>2. Moduluak:</b> <i>Curriculumaren alderdiak</i>	<b>2.1.</b> Eleaniztasuna eta kulturartekotasuna arautzen dituzten politikak (4 ECTS)	<b>Ignasi Vila dok.</b>
	<b>2.2.</b> Ikastetxeko hezkuntza eta hizkuntza proiektua (5 ECTS)	<b>Matilde Sainz dok.</b>
	<b>2.3.</b> Ikastetxeko hezkuntza eta kulturarteko proiektua (5 ECTS)	<b>Amelia Barquín dok.</b>
<b>3. Moduluak:</b> <i>Esku-hartzea</i>	<b>3.1.</b> Esku hartze eleanitza (5 ECTS)	<b>Eneritz Garro dok.</b>
	<b>3.2.</b> Esku hartze kulturartekoa (5 ECTS)	<b>Elisabet Coelho</b>
<b>4. Moduluak:</b> <i>Hausnarketa ekintzan</i>	<b>4.1.</b> Ikerketa-ekintza eta praktika gogoetatsua (6 ECTS)	<b>Arantza Ozaeta dok.</b>
<b>5. Moduluak:</b> <i>Praktikak</i> <i>Master amaierako lana</i>	<b>5.1.</b> Praktikak (6 ECTS)	
	<b>5.2.</b> Master amaierako lana (14 ECTS)	
<b>GUZTIRA</b>	<b>60 ECTS</b>	



Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen apiril-eko eztabaidak utzi duguna...

**>>> Euskara hautatzeko askatasuna lelopean, Nafarroako eremu ez euskalduneko herritarrek euskaraz ikasteko eta bizitzeko eskubidea aldarrikatu zuten Iruñean. Zuk zer hausnarketa egiten duzu gai horren inguruan?**

**> Komeni zaienean, aniztasuna**

Aniztasun hitzarekin ahoa bete bete eginda aritzen dira politikariak nonahi, eta baita Nafarroan ere. Lurralde aurreratu, anitza, zabala ei da, baina era berean Nafarroako Gobernuak ez du hain aberasgarriatza jotzen duen aniztasun hori onartzen eta herritarren zati bati euskaraz bizi eta ikasteko eskubidea ukatzen dio. Eta hori guxti balitz oztopoak baino ez dira agertzen nonahi; ditxosozko krisia tartean dela euskara diru murrizketak jasaten ari baita etengabe, bereziki Nafarroan.

Nafarroako eremu ez euskalduneko herritarrek ere eskubidea izan behar dute askatasunez euskaraz ikasi eta bizi nahi duten aukeratzeko! Eutsi goiari! *Maite*

**> Arrazoa dagoenean**

Gutziz ados nago esaten duzunarekin, Maite. Zentzudun izatea baino gauza ederragorik ez dago. Errespetua da faltan botatzen dudana. Jendeak bere kabuz eta taldean egin nahi dutenari errespetu falta dago. Ez naiz sartuko arrazoi historiko, kultural, etniko, linguistiko eta abarretan. Zuk ongi diozun bezala, aniztasuna, besteei errespetua azken finean, botereak nahi duen gisa erabiltzen du. Egunkariaren auziak argi eta garbi erakutsi du. Herritarrek aspaldi zekitena epaileek plazaratu dute. *Mikel. Z*

**> Maiatzaren 15ean, Iruñera!**

Euskararen herrian eta horrela ibili behar ere... irakurri nion norbaiti sarean, eta ez zaio arrazoirik falta. Onartezina da oraindik ere, zenbaitzuk hizkuntza gutxituei trabak jartzen aritzea. Zeren beldur dira baina? Nafarroako eremu ez euskalduneko herritarrei hitza eman eta euskaraz bizitzea hautatuko duten beldur?

Guztion indarra behar beharrezkoa izango delako, datorren maiatzaren 15ean denok Iruñera "Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea" aldarrikatzera! Han ikusiko dugu elkar! *Eneritz*

**> Beldurra**

Beldurra du administrazioak. Beldurra dute boterea dutenek. Beldurtuta daude Madrileko nahien pean dauden nafarrek. Gurasoei eta, oro har, herritarrei galdetzen zaienean, gehienak euren seme-alabak euskara ezagutzearen alde agertzen dira. Horregatik, mila trikimailu asmatzen dituzte jendearen nahia gauza ez dadin. Horretarako daude politikoak, komunikabideak, funtzionarioak... Noizko demokrazia pixka bat gehiago Nafarroan?

Ni ere, normaltasunaren alde eta gure gogoia agertzearen alde nago. Denok Iruñera! *Mariluz*

**Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...**

**>>> "Bakerako hezkuntza plana" ordezkatuz "Bizikidetzak demokratikoa eta indarkeriari legitimazioa kentzea" plana prestatzen ari da EAEko Hezkuntza Sailak. Zein da zure iritzia aldaketa horri buruz?**

**Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?**

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com) web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

# argitalpenak



## Hiru triku, hiru truku

Xabier Mendiguren  
ELKAR

Hiru triku ama galdu eta basoaren beste aldera abiatu behar dute janari bila. Baina bidean hiria zeharkatu behar dute; hango arrisku eta tranpa guztiei aurre egiteko, beren arantza zorrotzak baino ez dituzte.

Marrazkiak Nuria Hernandezek egin ditu. Argitaratu berri den ipuin liburua, Batela bildumaren 18. zenbakia da. •



## Izarren artzaina

Josu Waliño / Maite Gurrutxaga  
TXALAPARTA

Gerrak aldatu egin du Izarren bizi-modua. Bere amarekin bizi den gizona, Jota, fabrikatik kanporatu dute gerraren ondorioz, eta gizon beldurgarria bilakatu da. Izarrek, baina, Daniel ezagutuko du izarren artzaina. Danielen esanetan, pertsonen ametsekin pizten dira izarrak eta betetzean zerutik desagertzen doaz. Horregatik zaintzen ditu izarrak, ametsak egi bihur daitezzen. •



## Arazoak zinetokian

A.I. MORALES/A. VILLATE  
PAMIELA

Oihenarten urtebetetze eguna da eta amarekin ari da ospatzen. Meriendatu ondoren zinemara joatea erabaki dute biek eta bertan korapilatuko da eguna. Oihenartek arazoak ditu; ama desagertu egin da eta bakarrik dago zinemaman. Amak ere arazoak ditu, baina; Oihenart desagertu da eta haren bila dabil zinemaman... Zer egingo zenuke zuk horrelako egoera batean? •



## Sorginen zubia

Sergio Monedero/Alex San Vicente  
DELIRIUM

Euskal kondairetan oinarritutako bildumaren bigarren alea da Sorginen Zubia. Aurretik Tartaloren Leizean ezagutu ahal izan genituen Jon eta Maddi istorioetako protagonistak. Bikote jator honekin, abentura zoragarriak biziko ditu irakurleak sorginen lurralde arriskutsu eta miresgarrian eta han hainbat pertsonaia ezagutuko dituzte. •



## Ilargi amandrearekin, ikimilikiliklik

J.I. Basterretxea / Iban Izagirre  
EREIN

Auadi ganbelutxo jaioberria da. Jaio eta lehen pausuak ematen ditu eta harriduta dagobere begiak ikusten dutenarekin eta bere belarriak entzuten dutenarekin. Gauaz eta ilargiaren indarraz hitz egiten du, baita basamortuaz eta bertan bizi diren animaliez ere. Fantasia handiko kontakizuna da, irudi erakargarri lagunduta. •



## Ia denaren historia labor bat

Bill Bryson  
ELHUYAR FUNDZIOA

Zientziari buruz idazleak berak izan dituen galdeak dira liburu honen abiapuntua. Erantzunak bilatzeko, ohiko dibulgazio-liburuaren estilotik urrundu, eta oso hizkera apalean landu zuen testua, 2004an. Orotara 34 hizkuntzarata itzuli da *best seller* hau. Eta orain, euskaraz ere irakur daiteke Elhuyar Fundazioari esker. •

# ... nora joango gara?

## BARATZE Ingurugiro Heziketa Eskola Esperientzia bizi-bizia

“Non hazten dira uraza-landareak?”, galdetu die andereñoak Lehen Hezkuntzako ikasleei. “Supermerkatuan, andereño”, erantzun dio mutiko batek. Gaztetxo horrek, beste askok bezala, ez du sekula baratze bat ikusi. Gauegiz Arteagan (Bizkaia) dagoen Baratze Ingurugiro Heziketa eskolan baserria eta horren ingurunea ezagutzeko aukera dago. Gazte askorentzat guztiz ezezaguna den “mundu berri baten esperientzia bizi-bizia eta erakargarria” eskaintzen du.

Urdaibaiko babeslekuaren barnean, Basetxetas auzoko Oxina baserrian kokatutako eskola da Baratze, eta giza-kiaren eta ingurune naturalaren arteko bilgunea izan nahi du haurrentzat. Bi horien arteko askotariko harremanak –sarritan zailtasunez beteak– haurrei ulertaraztea du helburu, eta, horretarako, ingurumen heziketarako programa bat prestatu du.

Gainera, itsasadarrak, hondartzak, itsas padurak, arte hostotsuen basoak, haritz eta gaztainondo basoak, pinudi zabalak, abereek eta baserria inguratzen duten nekazaritza eta abeltzaintza ustiaketa eremuek horretarako “errepika ezina den ingurunea” eskaintzen dute.



BARATZE Ingurugiro Eskolako eraikuntza.

Horiek guztiak ezagutzeko haurren jakin-mina piztea da Baratzeko ardurdunen xedea, eta esperientzian eta ikerkuntzan oinarritutako metodologia erabiltzen dute eskaintzen dituzten lantegietan. Haurren adina, eta egonaldia egiteko hautatzen den urtaroa ere hartzen dira kontuan ekintza bat edo beste bat egiterakoan:

### Baratzea

Baratzea laborategi bizi bat izatea dute helburu baserri eskolako ardurdunek. Hau da, ikasteko eta ikertzeko toki bat izatea. Kanpoko baratzean dauden produktuak ezagutzeaz eta garapenaren zein prozesutan dauden ikusteaz gain, berotegiak ere bisitatuko

dituzte ikasleek. Horrela, prozesu oso baten ikuspegia izan dezaten.

### Animaliak

Haurrari etxe abereekin harremanetan jartzeko aukera eskaintzen zaio lantegi horretan. Bide batez, nola elikatzen diren eta zein ugalketa prozesu duten ikasten dute. Besteak beste, abereen eguneroko bizitza aztertuz: elikadura, garbiketa, abere bakoitzak eskaintzen dituen produktuen bilketa...

### Janariaren eraldaketa lantegia

Orokorrean, haurrek ez dakite gauza handirik elikagaien jatorriari buruz. Ia dena aurretik prestatuta eta bilduta erosten da egun. Horrela ez dute elika-





gaiek jasan duten prozesuaren jarraipena antzematen. Janarien eraldaketa lantegian, hurrek, baratzetik eta kortatik eskuratutako lehengaiak erabiliz, hainbat elikagai prestatuko dituzte: ogia, esnekiak, gozokiak...

### Eskulangintza

Lantegiaren helburu nagusia Euskal Herriko eskulangintzaren historia eta prozesua ikasleari hurbiltzea da. Baita hainbat produktu sortzeko beharrezkoak diren lehengaiak nondik lortzen diren erakustea ere. Gainera, euren sormen gaitasuna eta eskulernerako trebetasuna garatu ahal izango dituzte, hainbat produktu ekoitziz: otarrak, artilea, kandelak, paper-orea... Horrela, eskulangintzaren, inguru naturalaren, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren artean dagoen harreman hertsia beren kabuz ikusi ahal izango dute.

### Erlezaintza

Erleen mundua eta haiengandik lortzen ditugun produktuak (eztia eta argizaria) ezagutzeko aukera izango dute hurrek. Besteak beste, erle motak, erlezainaren tresnak, eztiaren ezaugarriak... landuko dituzte erlezaintza lantegian. Eta urtaroaren arabera, behar bezala jantzi eta erlauntzetara joateko parada izango dute!

### Lorezaintza

Loreek eta landareek baserriaren barruan duten garrantzia hurrei erakustea da lantegiaren xedea. Berotegi barruan dauden landare apaingarriekin eta kanpoko lorategietan daudeneekin egingo dute lan hurrek. Besteak beste, landareen eta loreen atalak, baliola, garapena eta beharrak landuko dituzte.

## NON DAGO?

Basetxea auzoa  
Oxina baserria  
48314 Gauteziz Arteaga  
Bizkaia



### Informazio gehiago:

- [www.baratze.com](http://www.baratze.com)

## Lantegiak:

### Perretxiko lantegia

Onddoak, horien ezaugarriak, motak, bizilekuak... ezagutu ahal izateko tresna guztiak dituen gela batean egiten da lantegia. Mikroskopioa, lupa, askotariko onddoen laginak poteetan kontserbatuta, bertako onddoen fitxak... Horien guztien laguntzaz onddoen mundua apur bat gehiago ezagutzeko eta onddoen sailkapena egiten ikastea da helburua.

### Ibilbide ekologikoak

Mendi eta zelaietan barna txangoa egingo dute hurrek. Aukera izango dute ingurunearen itxurari erreparatzeko, eta jasaten dituen aldaketetan gizakiak duen erantzukizunaren gainean hausnarketa egiteko. Ikasleen behaketarako gaitasuna piztea da ibilbide horien helburua: esperimentera, ikertzerara eta ondorioak ateratzera hel daitezten. Betiere, bidean aurkitzen duten guztiarekiko errespetua landuz.

### Zuraren lanketa

Lantegi horretan hurrek hainbat zuhaitz mota eta zuhaitz horiek izan dezaketen erabilera ezagutzeko dituzte. Zuhaitzen ezaugarri morfologikoak, habitat naturala, beharrak... identifikatuko dituzte. Eta zuhaitz bakoitzak duen erabileraren arrazoiak egurraren ezaugarrietan daudela azalduko zaie. Batzuk egokiak dira altzariak egiteko, beste batzuk papera ekoizteko, besteak zura lantzeko, baserriko beharrezko tresnak sortzeko...



# atzeko atetik



**Maite  
GURUTXAGA**

ILUSTRATZAILEA



**Izan pazientzia haurrekin, itxaron  
bere aurrerapena ikusteko.**

Imanol Urbieta



# Bizi yogaren abentura

## Mariren zuhaitzia Larraitzen



### Helduen Udalekuak

#### Tokia:

Irizar azpikoa (Landaturismoa)  
Zaldibia, Gipuzkoa

#### Datak:

1. Taldea abuztuak 16-20
2. Taldea abuztuak 23-27

#### Yogarekin batera

uztartuko ditugun iharduerak:

- Yoga
- Eskalada
- Piragua
- Mendi irteerak
- Zuhaitz parkea

#### Prezioa:

390 euro

### Mariren zuhaitzia Larraitzen

Larraitzen, Txindokiko magaleko parajeen dagoeneko martxan dago Mariren Zuhaitzia. 4 ibilbidez osatua dago zuhaitz parkea eta materialaren montaketa eta desmontaketa eta ibilbidean zehar laguntza eskaintzeko begiraleak daude.

\* Zuhaitz parkea goizeko 10:30ean ireki eta 18:30ean itxiko da, ostiral, aste bukaera eta jaiegunetan.

\* Ikastetxeentzat eta taldeentzat astean zehar ere irekiko da erreserba eginez gero.

\* Lau ibilbideen deskribapena:

- **Sugaar:** Ezinduentzako ibilbidea.
- **Basajaun:** 4-8 urte bitarteko umeentzako ibilbidea.

Heldu batek lagundu behar ditu umeak. Prezioa: 5 euro bakarkakoei eta 4,5 euro familia ugari eta taldeentzat.

- **Mikelats-Atarrabi:** 1,40 m.ko altura baino gehiago duten umeentzako ibilbidea. Prezioa: 9 euro bakarkakoei eta 8 euro familia ugari eta taldeentzat.

- **Mari + Mikelats:** 1,45 m.ko altura baino gehiago duten helduen ibilbidea. Prezioa: 15 euro bakarkakoei eta 14 euro familia ugari eta taldeentzat.

\* Erreserbak aurretik egitea komeni da.



TXINDOKIKO  
ITZALA

#### Kontaktua /

info@txindokikoitzala.com  
telef 628947253 / 943104367



**hh**  
hik hasi

## XI. HIK HASI Udako Topaketak

Donostian, uztailak 1 eta 2



UPV EHU  
Hezkuntzaren Teoria  
eta Historia Saila

**Matrikulatzeko azken eguna: maiatzaren 28a**

Jendurrean hitz egiteko, **Ahotsaren erabilpen egokia**, Euskarazko literatura, **Euskal mitologia eta ipuinak**, Nola erabili testigantzak, **Adimen emozionala**, **Psikomotrizitatea**, **Orkestra musikaterapeutikoak**, Osasun mentala, **Haurrentzako masajea**, Jolastu eta sortzaileki pentsatu HHn, **Hizkuntzaren jolasa**, **Buru-mapak**, **Matematika tailerra**, **Irakaskuntza 2.0. Wikiak**, **Web 2.0. Google**, **Bideoa**, **Artea eta irudia**, **Marrazten ikasi**, **Egurra lantzen**, **Papera eta kartoia**, **Biodantza**, **Euskal dantzak LHn**, **Europako dantzak**, **Cos-Art metodoa**, **Perkusioa: panderoa eta batukada**, **Yoga saioak irakasleentzat**, **Coaching...** eta arratsaldeetako kafe-solasaldiak.

**Informazioa: [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com) edo 943 371 408**